

DERIOKO UDALAK ANTOLATURIKO EKITALDIENTZAKO AZPIEGITURAK ALOKATZEKO ETA INSTALATZEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIAREN KARATULA

I.- KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1.- ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2017-CAD-1

2.- ESPEDIENTEA SUSPERTU DUEN UDAL ARLOA: Derioko Udalaren Alkatetza

3.- KONTRATAZIO ORGANOA: Derioko Udalaren Alkatetza

4.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: Derioko Udalak antolaturiko ekitaldientzako karpak, estaldurak eta azpiegiturak alokatzeko eta instalatzeko. Kontratua baldintza teknikoen agiriarekin eta kontratu balioa duen dokumentazioarekin bat etorritz egingo da.

ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDEKO KONTRATUA: EZ

KONTRATUAREN KONTRA ERREKURTSO BEREZIA JARTZEA: EZ

Bete beharreko administrazio betekizunak:

Derioko Udalaren kultur eta jai ekitaldiak antolatzeko beharrezko azpiegiturak izatea kontratuak diraun bitartean.

Proposamena formulatzen denean esleipendunak dituen betekizunei kalterik egin gabe, dokumentu hauek kontratu izaera izango dute:

- Karatula.
- Administrazio Baldintza Berezien Agiria.
- Baldintza Tekniko Berezien Agiria.
- Formalizatzeko dokumentua..

5.- ALDAERAK EDO HAUTABIDEAK: Ez dira onartzen.

6.- ZATIKETAK: Ez

7.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA HORREN LUZAPENA.

- Kontratuaren iraupena: URTE (1) BAT, kontratua formalizatzen den egunetik aurrera.
- Luzapena: Luza daiteke URTE (1) BAT

8.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Publizitate eta aplikagarria den esleipen prozedurarako, kontratuaren balio zenbatetsia da:

Balio zenbatetsia (BEZik gabe): 56.000 euro (BEZik gabe)

9.- AURREKONTUA KONTRATUA LIZITATZEKO

- Lizitatzeko gehienezko prezioa: 25.124 euro (BEZik gabe) aurreikusitako ekitaldiz
- Unitate prezioa Baldintza Teknikoen orriaren arabera

Diru kopuru hori gehienekoa da, eta bazarako eskaintzak horren arabera egingo dira.
Diru kopuru hori gainditzen duten eskaintzak kanpoan geratuko dira berehala.

10.- AURREKONTU XEDAPENA

3380 2269900 JAIK 30.400 euro

11.- PREZIOA FINKATZEKO SISTEMA: Diru kopurua jakin batekoa.

12.- AURRETIKO TRAMITAZIOA: Ez.

13.- TRAMITAZIOA: Ohikoa.

14.- BALIABIDE ELEKTRONIKOAK

Ez dira onartzen. Kontratatzailearen profilean dagoen informazioa informatzeko baino ez da.

II.- KONTRATATZEKO ESKATU BEHARREKO BALDINTZAK

15. GAITASUNA

Pertsona naturalak edo juridikoak kontratuen esleipendun izateko beharrezkoa dute, estatutuen edo sortze arauen arabera, kontratiko eginbeharrak beren jardueraren xede, gai edo esparrukoak izatea.

16.- ESKATU BEHARREKO ENPRESA HABILITAZIOA: Ez da eskatzen.

17.- KAUDIMENA

- **KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA:**

Kaudimen ekonomiko- eta finantzario frogatzeko gutxieneko betekizunak: Urteko negozio bolumena. Amaitutako azken hiru urteetako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, gutxienez, 37.686 eurokoa izan beharko da, eta kontratuaren lizitazio-prezioren urteko batz besteko baino bat eta erdi gehiago.

Egiaztatuko dira hauen bidez: Enpresaburua Merkataritza Erregistroan inskribatuta badago, negozioen urteko bolumena erregistro horretan onartutako eta gordailatutako urteko kontuen bidez egiaztatuko du. Erregistro horretan inskribatuta ez badago, berriz, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailatutako bidez egiaztatuko du. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek Merkataritza Erregistroan legezkatutako inbentario eta urteko kontuen liburu bidez egiaztatuko dute negozioen urteko bolumena.

(OHARRA: Negozio urteko bolumena da galeren eta irabazien artean sortzen duen zenbateko garbia, merkataritzako legegintzan ezarritako urteko kontuen arabera.)

- **KAUDIMEN TEKNIKO ETA /EDO PROFESIONALA:**

Kaudimen tekniko eta/edo profesionala frogatzeko gutxieneko betekizunak:

Kontratuaren xedearen izaera edo mota berdinekoak diren lanetan esperientzia, eta aipatutako epean, exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoak 17.576,8 euro, kontratuaren urteko prezioaren (25.124 euro) batz bestekoaren izandako %70ekoa.

Honela egiaztatuko da: Azken bost urteetako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda (Plegu honen IV. Eranskinean dagoen eredia erabiliz), horiek izango dituzte: zenbatekoa, datak eta hartzailea, bai publikoa bai pribatua. Zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira dagokion organoak egindako ziurtagiriaren bidez edo dagokion organoak bisatutako ziurtagiriaren bidez, baldin eta hartzailea sektore publikoko erakundea bada; hartzailea subjektu pribatua denean, horrek egindako ziurtagiriaren bidez, edo, ziurtagiri hori ezean, enpresariaren aitortzen baten bidez.

- **ENPRESA SAILKAPENA, ESKATUTAKO KAUDIMENA ORDEZKATU AHAL DUENA.**

Ez da behar SPKLTBeko 46. Artikuluak agintzen duenari jarraituz (1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratu legearen Araudi orokorra onartzen duena)

III.- LIZITAZIOA

18.- ESLEITZEKO PROZEDURA: Irekia.

SPKLTBeko 109. eta 138. artikuluek agindutakoaren arabera.

19.- LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

a) Kontratzailearen profila: www.derikoudala.net

b) Aldizkari Ofizialak: BAO.

20.- BALORAZIO KONTRATUAREN ALDEAK:

1) **Alde ekonomikoak (%70):**

a) **Planifikatuta dauden ekitaldien prezio osoa:** Gehieneko balorazioa **51 puntu**

b) **Elementuen prezioa egun gehigarritz:** Gehieneko balorazioa **19 puntu (puntu 1 elementu bakoitzari)**

Kategoria (a eta b) bakoitzeko eskaintzen balorazioa (puntuazioa) ondoko formula erabiliz:

$$VE = VMAX * OEMB / OE$$

Non:

OEMB: Eskaintza ekonomiko txikiena.

OE: Analizatutako enpresaren eskaintza ekonomikoa

VMAX: Kategoriaren balorazio handiena

VE: Analizatutako enpresaren eskaintzaren balorazioa

2) Alde teknikoak (%30):

a) Proposamen tekniko (15%):

- Proposamenean lan programa bat sartzea, kontratuaren xedeko azpiegituren muntaketa eta desmuntatzearen datak aipatzea eta muntaketa eta desmuntatze horren iraupean aipatzea.. **(1-5 puntu)**
- Larrialdietan Derioko Udalak dituen betekizunei erantzuna emateko enpresaren eskaintza bat, mantenamenduari, konponketari muntatzeari eta desmuntatzeari dagokienez, bakoitzari neurriak eta eskaintako denborak azalduz.. **(1-10 puntu)**

b) **Hobekuntzak (%15%):** Lizitatzailak eskaintako prezio barruan hobekuntzak formulatzea balioztatuko da, baldin eta kontratuaren xedearekin zer ikusi badute eta administrazioarentzat edozein aurrezki badute, bakarrik honakoetan:

Komun eramangarriak sartzea:

- o San Isidro: 4 kabina eta 4 zutiko pixaleku. (5 puntu)
- o Santiago, San Ignacio eta San Esteban: 2 kabina (5 puntu)
- o San Miguel: 2 kabina eta zutiko pixaleku 1 (5 puntu)

Dokumentuak EZ ditu 25 orrialde baino gehiago izango, barne eranskinak (margenak: goikoak eta behekoak: 3 cm. ezkerre; 2,5 cm. eskumena; 2 cm. Letra mota: arial, tamaina 11, lerroartekoa 1,5 lerro, paragrafo justifikatua, koskarik gabe, paragrafo aurretik espazioa 6 pto.). Ezarritako mugak gaindituz gero, eskatzaileari zigorra ezarriko zaio, hau da, bere eskaintzak lortutako puntuen erdiaren baliokidea.

21.- AURKEZTEKO DOKUMENTAZIO TEKNIKO, ENPRESEN ALDE EKONOMIKOAK ETA TEKNIKOAK BALORATZEKO.

Eskaintza ekonomiko eta tekniko eta eskaintzarik onenak kosturik gabe Udalarentzat, karatula honen 22. puntuan ezarritakoaren arabera.

22.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA

1. GUTUN-AZALA- DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA.
2. GUTUN-AZALA- BALIO-IRITZIEN BIDEZ APLIKATUKO DIREN ESLEIPEN IRIZPIDEAK, ESKAINTZA TEKNIKO ETA HOBEEKUNTZAK.
3. GUTUN-AZALA.- ESKAINTZA EKONOMIKOA

Gutun-azal guztiak itxita egongo dira eta derrigorrez honako datuekin identifikatuta:

GUTUN-AZALA: (ZENBAKIA ETA GUTUN-AZALAREN TITULUA)

DOKUMENTAZIOA: (DOKUMENTUEN ZERRENTA)

Kontratuaren titulua:

Esp. zk.: **2017-CAD-1**

Izendapen soziala:

IFK:

Izen soziala (helbidea):

Ahaldunaren izena:

NAN

Harreman telefonoa:

Kontaktu pertsona:

Helbide elektronikoa:

AURKEZTEKO EPEA: 15 egun kontratuaren iragarkia publikatzen denetik

23.- LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA (ESKAINZA): AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA

1. GUTUNA- DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA:

- **Adierazpen arduratsua** (Plegu honen **I. Eranskinaren** eredia), honekin kontratatzeko baldintzak betetzen dituela adierazten du lizitatzailleak, eta, eta zehazki, Plegu honetan ezarritako baldintzak, eta horrela egiaztatzen duen dokumentazioa daukala. Konpromisoa hartzen du kontratazio organoak eskatzen duenean aurkezteko, eta gehienaz ere, esleipen proposamena bere alde denean, esleipena egin aurretik aurkezteko.

Adierazpen honen edukia aurreikusitako ereduaren arabera izango da, eta eredia aldatzen bada lizitaziotik kanpoan gera daiteke.

Jakitera ematen da legeak eta Plegu honek eskatzen dituzten baldintzak frogatzeko momentua izango dela proposamenak aurkezteko epea amaitzen denena.

2. KARTAZALA- BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK ETA HOBEKUNTZAK.

- Karatula honetako 20.2) puntuan eskatzen den dokumentazio teknikoak aurkeztuko da, formulak ez badira erabiltzen kuantifikazioan, balio-judizio baten arabera egiten bada, orokorrean, lizitatzailleak aurkeztea egoki uste duena, prezioari buruzko dokumentazioa jasota ez izan arren.

• **3. GUTUN-AZALA: ESKAINZA EKONOMIKOA.**

Proposamen ekonomikoa Pleguaren II. Eranskinaren arabera aurkeztuko da, baina Plegu honen II. Eranskinaren eredian ez aurkezteagatik lizitaziotik kanporatu ahal da.

Kontratua gauzatzeko azpi-kontratazioa eginez gero, prestazioak edo unitateak zehaztuko dira. Aldi berean, azpikontratazioaren ehunekoa, izena edo enpresaburu-profila eman beharko da, eta konpromiso-agiria alde bietan sinatuta (Plegu honen **XII. Eranskinaren** dagoen ereduaren arabera).

Dokumentuak EZ ditu 25 orrialde baino gehiago izango, barne eranskinak (margenak: goikoak eta behekoak: 3 cm. ezkerra; 2,5 cm. eskumena; 2 cm. Letra mota: arial, tamaina 11, lerroartekoa 1,5 lerro, paragrafo justifikatua, koskarik gabe, paragrafo aurretik espazioa 6 puntu). Ezarritako mugak gaindituz gero, eskatzaileari zigorra ezarriko zaio, hau da, bere eskaintzak lortutako puntuen erdiaren baliokidea

24.-BEHIN BEHINEKO BERMEA: Ez.

25.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaikideen eraketa:

Mahaiburua: Esther Apraiz Fernández de la Peña and.

Mahaikideak:

- EAJ-PNV udal taldeko zinegotzi bat
- Euskal Herria Bildu Derio Udal Taldeko zinegotzi bat
- Euskal Sozialistak udal taldeko zinegotzi bat
- Belén Renobales Sanjines and.
- María Cambeiro Salgado and.

Idazkaria: Nahia Beneitez Tejera and (hitzarekin baina botorik gabe)

Ordezkaria:

- Mahaiburuarena: Nekane Aiarza Zallo and.
- Idazkariarena: Belén Renobales Sanjines and.

26.- BALIO ANORMAL EDO NEURRIGABEAK DITUEN ESKAINTZA: Ez dira jartzen.

IV.- KONTRATUAREN ESLEIPENA

27.- AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA KONTRATUA ESLEITU AURRETIK.

Kontratazio organoak ondoko dokumentazioa eskatuko dio ekonomiaren aldetik proposamenik onena egin duen lizitatuileari, hark errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita **HAMAR (10) EGUN balioduneko** epean aurkezteko:

A- DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA.

A-I.- Jarduteko gaitasuna duela egiaztatzen duen dokumentazioa: honakoak gertatzen direnean:

- a) **PERTSONA FISIKOA:** NAN edo proposamena egiten duen pertsonaren dokumentu sinesgarria.
- b) **PERTSONA JURIDIKOA:** eratzeko eta, ahal badagokio, aldatzeko eskritura, Merkataritzako Erregistroan inskribatua, dagokion merkataritza legeriari jarraiki. Pertsona juridikoa ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatuko da, eratze-eskritura edo dokumentuaren bidez, estatutuen bidez edo sorrerako ekintzaren bidez. Bere jarduerak arautzen dituzten legeak agertu beharko dira horietan, eta, hala badagokio, dagokion Erregistro ofizialean inskribatuta egon behar. Baita bere Identifikazio Fiskalaren Kodea (IFK) ere. Hori guztia, jatorrizko agirian edo kopian behar bezala legezaturik indarreko legeriaren arabera, edo fotokopia konpultsatua, horretarako gaitasuna duen funtzionarioak egina. Dokumentu horiek, lizitatuilearen erregimen juridiko zehatza bilduko dute proposamena aurkezten den momentuan.
- c) **ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK:** elkartekide bakoitzak bere gaitasuna, pertsonalitatea, ordezkapena eta kaudimena egiaztatuko ditu; beste agiri batean

adieraziko ditu suskribitzen dituen izenak eta zirkunstantziak, bakoitzean dauzkan ehunekoak eta Administrazioaren aurrean izateko ordezkariaren izena kontratuak dira bitartean.

- d) **ESPAINIAKOAK EZ IZAN ETA EUOPAR BATASUNeko ESTATU KIDEETAKOAK EDO EUROPAKO ESPARRU EKONOMIKOKO AKORDIOA SINATU DUTEN ESTATUETAKOAK DIREN ENPRESEK** egiaztatuko dute erregistro profesional edo merkataritza erregistroetan duten inskripzioa, baldintza hori dagokion Estatuko legeriak horrela eskatzen duenean, edo zerbitzuen kontratuetarako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Araudiaren I. Eranskinean adierazitako ziurtagiriak aurkeztuko dira.
- e) **EUOPAR BATASUNekoAK EZ DIREN ESTATUETAKO PERTSONA FISIKOAK ETA JURIDIKOAK EDO EUROPAR EKONOMIA EREMUKOAK EZ DIRENAK:** Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena, aurretik enpresak egiaztatuko profesional, merkataritza eta antzeko tokiko Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar, edo hori ezean, kontratuaren jardueraren tokiko trafikoan ohikotasunez erabiltzen direla egiaztatu behar. Aldi berean, elkarrekikotasunari buruzko txostena aurkeztuko du, SPKLTBeko 55. artikuluan aipatzen dena.

A-II.- Ordezkarien dokumentu frogagarriak. Besteen izenean edo pertsona fisiko baten izenean aurkeztu direnek horretarako ahalmen-agiria aurkeztuko dute, Ahalmen-agiria egingo du indarreko Letratu batek edo Idazkari Nagusiak. Agiriak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izango dira. Halaber, ahalordea duen zion pertsonaren edo ordezkariaren NANaren kopia behar bezala konpultsatuta aurkeztuko da. Ordezkapena ziurtatzen duen dokumentuak ahalmenen delegazio iraunkorra izango balu Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko litzateke.

A-III.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoaren egiaztatze dokumentazioa

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

1.- Onartutako eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak, baldin eta enpresaria erregistro horretan inskribatuta badago; eta erregistro horretan inskribatuta ez badago, inskribatuta dagoen erregistro ofizialean aurkatutakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresariak euren inbentario-liburuak eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak aurkeztuko dituzte

Kaudimen teknikoaren:

1.- Azken bost urteetan egindako zerbitzu edo lan garrantzitsuenen zerrenda (Plegu honen IV. Eranskinean dagoen ereduaren arabera) horren baitan adieraziz zenbatekoa, datak eta horien hartzailea, publikoa nahiz pribatua.

A-IV.- Talde bereko enpresen zerrenda, elkarrekin taldeko pertsona juridikoak direnean

A-V.- Ezgaitasun langileak kontratatze konpromisoaren buruzko adierazpen arduratsua: enpresak 50 langile edo gehiago dituenean, ezgaitasunak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeak bere 38.1 artikuluan xedatzen duena beteko da, edo, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuak ezartzen dituen ordezkari neurriak hartu beharko dira (egoera berezietarako langile ezgaitasunen aldeko erreserba kuota arautzen duena) (Plegu honetako XI. Eranskinean dagoen ereduaren arabera)

A-VI.- Aldi baterako enpresa elkarteak.

Aldi baterako enpresa elkarteen kaudimen ekonomikoari eta kaudimen finantzarioari eta kaudimen profesionalari dagokienez, kide bakoitzaren egiaztatutako ezaugarri guztiak metatuko dira.

Aldi baterako enpresa elkarte bati egiten bazaio esleipena, horrek elkartearen sorrera eskritura publikoaren bidez egiaztatuko du, eta bai elkarte horri emandako IFK ere. Hori guztia egiaztatuko du kontratua formalizatu aurretik. Aldi baterako enpresen elkarreak kontratua azkendu arte iraungo du.

A-VII.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa.

Atzerriko enpresek berriazko adierazpena aurkeztuko dute, hau dioena: Espainiako Epaitegien eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzeko berriazko adierazpena helaraziko dute, kontratutik era zuzenean edo zeharka ondoriozta daitezkeen gorabehera guztietarako, eta hala dagokionean, lizitatzailerari legokiokoen atzerriko jurisdikzio-foruari.

EGIAZTAPENA LIZITATZAILEEN ERREGISTROAREN ZIURTAGIRIEN BIDEZ.

Agiri honen 1, 2 eta 3. puntuetan adierazitako zirkunstantziak egiaztatuko dira ondoko erregistroren batek egindako ZIURTAGIRIA erabiliz:

1. Euskadiko Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala,
2. Estatuko Lizitatzailer eta Enpresarien Erregistro Ofiziala (hala behar denean), edo
3. Sailkapenerako erkide ziurtagiria.

Dagokion erregistroaren ziurtagiria aurkeztu eta horretan ez badaude eskatutako zirkunstantziak, horiei buruzko egiaztatzea aurkeztu beharko da.

Nolanahi ere, ziurtapenarekin batera lizitatzaileraren adierazpen arduratsua aurkeztuko da, horrek adierazi beharko du dagokion ziurtagirian adierazitako zirkunstantziak ez direla aldatu (Plegu honen V. Eranskinean dagoen ereduaren arabera).

B.- ZIURTAPEN POSITIBOA ZERGA ADMINISTRAZIOAREN AGENTZI ESTATALAK EDO FORU OGASUNAK LUZATU, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KONTRATUEN ARAUDIAREN 13. ARTIKULUAK AGINDUTAKO BALDINTZAK OROKORREAN BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUENA

C.- KONTRATUAREN XEDEARI DAGOKION EPIGRAFEAN JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGAN ALTAREN JATORRIZKO AGIRIA EGO KOPIA KONPULTSATUA, EDO, ZERGA HORREN MATRIKULAN, BAJA HARTU EZ DUELAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN BATEZ OSATUTA (Plegu honen IX. Eranskinean dagoen ereduaren arabera) ETA EKAINAREN 30eko TOKI OGASUNEN 6/1989 FORU ARAUAREN 5. ARTIKULUAN EZARRITAKO SALBUESPENEN BATEAN EGONEZ GERO, BERARIAZKO SALBUESPENA.

D.- ZIURTAGIRI POSITIBOA GIZARTE SEGURANTZAK LUZATUA, SPKLTBeko 4. ARTIKULUAK JARTZEN DITUEN BALDINTZAK OROKORREAN BETETZEN DIRELA ZIURTATUZ.

E.- BEHIN BETIKO BERMEA EGIN DELA ZIURTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA, Plegu honen VI, VII eta VIII. Eranskinetan dauden ereduaren arabera

F.- ERAKUNDE ASEGURATZAILEAREN ZIURTAGIRIA EGIAZTATUZ KONTRATISTAK HARPIDETUTA DUEN ASEGURU POLIZA INDARREAN DAGOELA (DITUEN ASEGURU POLIZAK INDARREAN DAUDELA) KONTZEPTU HAUETAN: ESTALDURA, IRAUPENA ETA KARATULAREN 38. PARAGRAFOAN EZARRITA DAUDEN BALDINTZAK ETA KONTRATUA INDARREAN DAGOEN BITARTEAN URTEKO PRIMAK ORDAINDUTA DAUDELA, Plegu honen XIII. Eranskinean dagoen ereduaren arabera.

G.- ALDI BATERAKO ENPRESEN ELKARTEKIDETIA BADA ESLEIPENDUNA, HORREN ERATZE-AGIRIA, HALABER, ELKARTEKIDE BAKOITZAK AURKEZTEKO DU ZIURTAGIRI POSITIBOA OGASUNEI BURUZ ETA GIZARTE SEGURANTZARI BURUZ ETA JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGAREN DOKUMENTAZIOARI BURUZ.

H.- LAN KONTRATUAK, GIZARTE SEGURANTZARI KOTIZAZIO DOKUMENTUAK ETA GIZARTE ZERBITZU PUBLIKO ESKUDUNEN FROGAGIRIAK EGIAZTATZEKO GIZARTE BAZTERKETAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO KONPROMISOA BETE DUELA

I.- KONTRATUA GAUZATZEKO ERABILTZERA EDO ATXIKITZERA KONPROMETITU DEN BALIABIDEAK BENETAN ESKURA JARTZEARI BURUZKO FROGAGIRIAK SPKLTBeko 64-2 ARTIKULUAREN ARABERA, Plegu honen X. Eranskinean dagoen ereduaren arabera.

J.- HITZARMEN KOLEKTIBO APLIKAGARRIA ADIERAZTEA. Lizitzaileak zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du, non hitzarmen kolektiboa adieraziko duen.

28.- BEHIN BETIKO BERMEA: esleipen zenbatekoaren %5a, BEZik gabe.

V.- KONTRATUA GAUZATZEA

29.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Derioko Udalaren Bulego Teknikoa

30.- ORDAINKETEN ARAUBIDEA

Ordaintzeko aldizkakotasuna: zerbitzua aurkezten den hilean, 30 eguneko epean, egindako zerbitzua onesten den egunetik kontatzen hasita, baldin eta kontratistak zerbitzua egin eta horren faktura aurkezten duenetik 30 egunera.

Ordaintzeko modua: ordainduko da kontratistak fakturak aurkatu ondoren, Administrazio Baldintza Berezien Agiriak ezarritakoaren arabera eta banku transferentziaren bidez. Fakturen honakoa zehaztuko dute: ekitaldirako egindako instalazio zerbitzuak eta azpiegiturak kentzea, datak eta erabilitako elementuak desglosatuta, bakoitzaren zenbateko indibidualak adierazita formulatutako eskaintzaren arabera.

BOST (5.000,00) MILA EUROko edo gorako fakturak forma elektronikoa aurkeztuko dira horretarako Derioko Udalak jarritako webgunean (www.deriokoudala.net).

Aurkezteko tokia: Derioko Udalaren erregistroan. Herriko plaza 3an. 48160 Derio.

Fakturretan egon behar diren datuak:

- Tramitazioa dagokion organoa: Alkatetza Bulego Teknikoaren bidez
- Kontabilitate publikoan gaitasuna duen organo administratiboa: Kontu-hartzailletza.
- Kontratazio organoa: Derioko Udaleko Alkatetza.
- Faktura onesteko gaitasuna duen organoa: Derioko Udaleko Alkatetza.
- Hartzailea: Derioko Udala, Herriko plaza 3, Derio, Bizkaia.

31.- PREZIOEN BERRIKUSPENA: Ez da egingo.

32.- AZPIKONTRATAZIOA

EGIN BEHAR DA: Bai.

EHUNEKO HANDIENA: %50era arte.

Azpi-kontratazioa denean, lizitatuak eskaintzan (3. KARTAZAL) azpikontratatu duena jakitera emango du, ehunekoa adierazten, ehunekoa aipatuz eta azpi-kontratatuaren enpresa-profila edo izena identifikatuz, eta konpromiso-agiria alde biek sinatuta (Plegu honen **XII: Eranskinean** dagoen ereduari jarraiki).

Nolanahi ere, azpikontratuak eskaintzan adierazitakora egokituta egongo dira, eta kontratazioa egin aurretik idatziz jakinarazi beharko diote Administrazioari.

33.- ZIGORRAK.

- Instalatzen atzerapen egun bakoitzeko, 1.000 euroko 300 euro edo azpiegiturari dagokion kostu osoaren portzentajea.
- Akastun materiala edo osatugabeko materiala instalatzeagatik, 1.000 euroko 100 euro edo azpiegitura-zerbitzuari dagokion kostu osoaren portzentajea.
- Instalatuak azpiegituren kalitatea eskaintakoa baino txikiagoa izateagatik, 1.000 euroko 150 euro azpiegitura-zerbitzuari dagokion kostu osoaren portzentajea.
- Ezarritako azpiegituren zerbitzuren bat ez emateagatik, 1.000 euroko 400 euro edo azpiegitura-zerbitzuari dagokion kostu osoaren portzentajea.
- Zerbitzua hobetzeko eskaini diren prestazioak ez betetzeagatik, 1.000 euro elementu edo unitate bakoitzeko.
- Instalatuak azpiegituren segurtasunari buruzko ziurtagiria ez aurkezteagatik, Gaitasuna duen teknikariak egin behar duena, 1.000 euro ziurtatu gabeko azpiegitura bakoitzeko.
- Lan programan ezarritako epean azpiegiturak ez kentzeagatik, 1.000 euro elementu edo unitate bakoitzeko eta egun bakoitzeko.
- Klausula sozialean ezarritako baldintzaren bat ez betetzeagatik, kontratuaren kostuari %10eko isuna jartzea.

34.- KONTRATUA HARTZEKO EPEA: HILABETE (1) BAT.

35.- KONTRATUAREN BERME EPEA: SEI (6) HILABETE.

36.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua alda daiteke SPKLTBeko 107. artikuluan ezarritako baldintzak eta mugak gertatzen direnean. Halaber, egun gehiago ipini daitezke elementu bakoitzaren alokairuan, Udalaren premien arabera, dena den, ezin da kontratuaren balio zenbatetsia gainditu.

37.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratazio organoak kontratua amaitutzat jo dezake SPKLTBeko 223. eta 299. artikuluetan ezarritako arrazoiak gertatzen direnean, SPKLTBeko 224, 225 eta 300. artikuluetan ezarritako ondorioekin eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Araudi Orokorraren 109. Artikulutik 113-113 bitarteko artikuluetan ezarritako ondorioekin.

38.- ASEGURUAK

BEHAR DA: BAI.

POLIZA MOTAK:

- Erantzukizun zibilaren aseguruak kontratistak ordainduko ditu. Aseguruak estaliko ditu herrian jarriko diren azpiegiturek egindako kalteak bai herritarrei, bai ondasun partikularrei, bai ondasun publikoei, ipinita dauden denboran Udalak erabakitako tokietan. Gutxienez, 600.000 euroko estaldurarekin.
- Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu kalte-ordainak, galera ordainak, bere edozein langilek, ibilgailuk eta lan-tresnek egina zerbitzuak betetzen dituztenean, gutxienez 600.000 eurokoa izango da.

39.- KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK.

Kontratu honek bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikuluan xedatuta eta azaoaren 24ko 10/1982 Legeak araututa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa dena, eta hori garatzen duen araudia, beraz, enpresa esleipendunak eta izan daitezkeen azpi-kontratistek ikusi behar dute hizkuntza bien (euskara zein gaztelania) koofizialtasuna betetzen dela kontratua egiterakoan, eta bere jarduera egongo da elebitasun irizpideen menpean eta hiritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz.

Hizkuntza betekizunak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da, eta hori ez betetzeak ondorio orokorrak ditu kontratu honen edozein klausula betetzerakoan.

40.- GARRANTZIZKO BESTE DATU BATZUK

Administrazio baldintzen agirian dauden aitorten eta ziurtagirien ereduak emango dira WORD formatuan, lizitatzailleek ezkatatuta.

**DERIOKO UDALAK ANTOLATURIKO EKITALDIENTZAKO AZPIEGITURAK
ALOKATZEKO ETA INSTALATZEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN
ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA**

AURKIBIDEA

LEHENENGO KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.	3
1. klausula- Kontratuaren xedea.	3
2. klausula - Kontratuaren bidez beteko diren administrazioaren premiak.	3
3. klausula – Araubide juridikoa.	3
4. klausula– Kontratuaren zatiak.	4
5. klausula – Kontratuaren balio zenbatetsia eta kontratuaren lizitazio prezioa.	4
6. klausula - Behar beste aurrekontu-kreditu egotea..	5
7. klausula.- Kontratuaren iraupena.	5
8. klausula - Bermeen araubidea.	5
9. klausula - Kontratazio espedientea izapidetzea..	6
10. klausula - Bide elektronikoak.	7
BIGARREN KAPITULUA.- LIZITAZIOA.	7
11. klausula - Esleitzeko prozedura eta eskaintzen eskaera..	7
12. klausula - Kontratuaren alderdiak balioztatzea.	7
Proposamenak aurkeztea..	7
14. klausula - Berdintasuna, gardentasuna eta Isilpekotasuna	7
15. klausula - Proposamenen forma eta edukia .	8
16. klausula- Balio anormalak edo neurrigabeak dituzten eskaintzak	9
Prozedurako enpresaren ondorengotza..	9
18. klausula - Aurkeztutako dokumentazioaren sailkapena, hautatzeko irizpideen balorazioa eta proposamenak irekitzea eta aztertzea .	9
19. klausula - Esleipen proposamenaren ondorioak. Kontratuari uko egitea edo atzera egitea	9
HIRUGARREN KAPITULUA . ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA.	10
20. klausula - Esleipen proposamena eta kontratua esleitzea.	10
21. klausula - Aseguruak..	14
22. klausula - Kontratua burutzea eta kontratua formalizatzea.	14
LAUGARREN KAPITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA.	15
23. klausula - Lanak hastea.	15
24. klausula - Kontratuaren arduraduna .	15
25. klausula - Kontratua betetzea.	15
26. klausula - Lanak akatsekin edo txarto gauzatzea .	16

27. klausula - Epea betetzea.	16
28. klausula - Kontratatari ordaintzea eta epeak ordaintzeko.	16
29. klausula - Fakturak.	17
30. klausula - Prezioak berrikustea .	17
31. klausula - Lan- eta gizarte-betebeharrak.	17
32. klausula - Bitarteko materialak eta giza baliabideak.	17
33. klausula - Bete beharreko hizkuntza baldintzak .	18
34. klausula - Plantillan desgaitasunik eduki behar duten enpresak.	18
35. klausula - Gauzatzeko baldintza bereziak.	18
36. klausula - Kontratua aldatzea .	20
37. klausula - Kontratua etetea .	21
38. klausula -. Enpresa esleipendunaren ondorengotza kontratua gauzatzea	21
39. klausula - Isilpekotasuna .	21
40. klausula- Datu pertsonalen tratamendua .	21
41. klausula- Lanen jabetza .	22
BOSGARREN KAPITULUA.- EXTINCIÓN DEL CONTRATO.	22
42. klausula - Kontratua betetzea.	23
43. klausula - Akatsak eta hutsak berme epean .	23
44. klausula - Bermeak itzultzea eta ezereztea..	23
45. KLAUSULA- Kontratua suntsiaraztea..	24
46. klausula - Kontratuak lagatzea eta azpikontratatzea..	24
SEIGARRIN KAPITULUA. PRERROGATIBAK, ERREKURTSOAK ETA DEUSEZTASUN ARAZOAK	25
47. klausula - Administrazioaren prerrogatibak.	25
48. klausula - Kontratazio arloko errekurtsio berezia.	25
49. klausula - Berraztertze errekurtsioa	26
50. klausula - Deuseztasun arazoa .	26

DERIOKO UDALAK ANTOLATURIKO EKITALDIENTZAKO AZPIEGITURAK ALOKATZEKO ETA INSTALATZEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

LEHENENGO KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

1. klausula- Kontratuaren xedea.

Kontratu honen xedea da baldintzen agiriaren **Karatulako 4. paragrafoan** adierazita dagoen zerbitzua ematea

Prestazioa izango da Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Preskripzioen Agirian dauden baldintzen arabera.

Hala eta guztiz ere, eskaintzetan aldaerak onartzen direnenean, lizitatuzaileen aldaerak aurkez ditzakete, eta baldintza agiriaren **Karatulako 5. puntuan** zehaztutako elementuen eta baldintzen arabera, puntu horretan adierazitako gehienezko kopuruan.

Kontratua zatika banatuta badago, **Karatulako 6. atalarekin** bat etorritik, zati bakoitzaren xedea unitate funtzional bat da eta banaka gauzatu ahal da. Lote bakoitza bereiz kontratatu izango izango da.

2. klausula - Kontratuaren bidez beteko diren administrazioaren premiak.

Kontratuaren xedea eta beteko diren premiak dira pleguaren **Karatulako 4. paragrafoan** ezarritakoak.

3. klausula – Araubide juridikoa.

Kontratuak administrazio izaera dauka, ondokoek araututa:

- Administrazio baldintzen agiria eta preskripzio teknikoaren agiriak arautzen dute kontratua
- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena (SPKLTB).
- Urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena (SPKLTB).
- 817/2009 Errege Dekretua, urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legeari buruzko garapen partziala.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Tokiko Araubide arloan indarrean dauden Lege-xedapenen Testu Bategina onartzen duena.
- Tokiko Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren III. Titulua, 1955eko uztailaren 17ko Dekretuak onartuta.
- Beste edozein xedapena, baldin eta kontratazioa arautzen badu estatu mailan zein autonomi mailan eta toki mailan, eta toki eremuan aplikagarria bada.
- Eta ordezkari moduan aplikatuko dira administrazio zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Kontratatutak, nahiz eta ez ezagutu kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak edo Administrazioak onartutako jarraibide, klausula agiri edo era guztietako arauak, eta horiek

guztiak hitzartutakoa betetzeko aplikatu beharrekoak badira, guztiak betetzeko obligazioa izaten jarraituko du, ez da horregatik betebeharrak horretatik salbuetsita geldituko.

Baldintza agiri hau eta Baldintza Tekniko Berezien Agiria bat ez datozenean, Baldintza Agiri honetan ezarritakoa nagusituko da, salbu, izaera teknikoa duten gaiak eta zehaztapenak.

4. klausula – Kontratuaren zatiak.

A) Administrazio kontratatzailea.

Kontratatzeko ahalmena.- Kontratazio organoa izango da Plegu honen **Karitulako 3. paragrafoan** aipatzen dena.

Kontratuaren erantzulea.- Plegu honen **Karitulako 29. paragrafoan** aipatzen dena edo kontratazio organok aukeratzen duena kontratua gauzatzeko.

Kontratatzailearen profila: www.deriookoudala.net/

Udalaren webgunean dago. Webgune horrek datuak eta informazioa dauzka kontratua egiteko.

B) Kontratista.

Kontratatzeko gaitasuna.- Pertsona natural zein juridikoen, espainiar zein atzerritarrek, Derioko Udalarekin kontratatua egin dezakete, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekuetan sartuta ez badaude eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badute, edo, behar bezala sailkatuta badaude SPKLTBek horrela eskatzen duenean. Enpresaburuek, halaber, kontratuaren objektu den jarduera edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresa edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

- a) Pertsona juridikoak: kontratuaren esleipendunak izan daitezke prestazioak erakundeak berezko dituen helburu, xede edo jarduera-eremuak izaten badira, estatuetan edo fundazio-arauetan ezarritakoaren arabera.
- b) Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak kontratatzeko ahalmena izango dute, ezarrita dauden Estatuetakoen legeriaren arabera, gaitasuna badute zerbitzua emateko.

Enpresarien elkarteek Derioko Udalarekin kontratua egin dezakete, baldin eta horretarako aldi baterako elkarteak badira, eta obligazio solidarioa hartuko dute Udalarekin, eta adjudikazioa bere alde eman arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoan formalizatzea. Halaber, elkartearen ordezkari edo ahalguztari bakarra izendatuko dute kontratuaren ondoriozko eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko kontratua iraungi arte, nolahi ere, zenbateko handi samarrak kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eman ahal izango dituzte enpresek. Enpresaburuen aldi baterako elkarte horiek kontratua azkendu arte iraungo dute.

5. klausula – Kontratuaren balio zenbatetsia eta kontratua lizitatzeko aurrekontua.

Publizitate eta aplikagarria den esleipen prozedurarako, kontratuaren balio zenbatetsia da (BEZik gabe, hori Administrazioak bere gain hartuko du) **Karitulako 8. paragrafoan** dagoena.

Kontratu honen lizitazio aurrekontuaren zenbatekoa da Plegu honen **Karitulako 9. paragrafoan** agertzen dena.

Lizitazio prezioaren barruan hartzen dira (Pleguaren **Karatulako 9. paragrafoan**) kontzeptu guztiak, baita Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta jarduketa grabatu ahal duen beste edozein zerga edo gastua ere, bidai gastuak, elkargoen onespesak, eta abar.

Lizitzaileen proposamen ekonomikoek ezin dute gaintu kontrataziorako onartutako lizitazio aurrekontua, eta horren diru kopurua adierazita dago Plegu honen **Karatulako 9. paragrafoan**. **Karatulako 9. paragrafoan** ezarritako diru kopurutik gorakoa denean, proposamena ez da onartuko..

6. klausula – Behar beste aurrekontu-kreditu egotea.

Behar beste aurrekontu-kreditua dago Administrazioak kontratu hau betetzeko dituen obligazio ekonomikoetara aurre egiteko. Horretarako aurrekontu xedapena da Plegu honen **Karatulako 10. paragrafoan** dagoena.

Karatulako 12. paragrafoan aipatuko da kontratua aurretiko tramitaziokoa den. Aldez aurreko tramitazio-espedituetan, esleipena egingo da ekitaldian behar adineko kreditua dagoenean.

7. klausula – Kontratuak irauten duen denbora.

Kontratua betetzeko edo gauzatzeko gehieneko epea jarrita dago Plegu honen **Karatulako 7. paragrafoan**.

Nola nahi ere, Plegu honen **Karatulako 7. paragrafoan** ezarrita badago, kontratua luza daiteke prestazioak berresteko xedearekin. Luzapena kontratazio organoak erabakiko du, eta enpresariak ezinbestean onartu beharko du, salbu, Agiri honen Karatulako 7. paragrafoan kontrakoa aurreikusten bada, eta ezin da egin aldean adostasun taziturik gabe..

8. klausula – Bermeen araubidea.

A.-Behin behineko bermea.

Horren eskaera eta zenbatekoa ezarriko dira Plegu honen **Karatulako 24. paragrafoan**.

Behin behineko bermea eratu daiteke SPKLTBeko 96. artikulua ezarritako moduetako edozeinetan (Plegu honen **VI., VII. eta VIII. eranskinetan** dauden ereduaren arabera).

Behin behineko bermea eskatuz gero, bermeak erantzuneko eskaintza mantentzeko kontratua adjudikatu arte. Hala ere, adjudikatuzailea ez den enpresa lizitatuzailearentzat, behin behineko bermeak erantzuneko eskaintza SPKLTBeko 151.2 artikulua bigarren paragrafoak inposatutako obligazioei ere bai (zerga alorreko eta gizarte segurantzako betebeharretan egunean egotea eta kontratuari emango zaizkion baliabide konprometituek erabilgarri egotea eta behin betiko bermea eratzea)

Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratuaren esleipena egin eta berehala itzuliko zaie lizitatuzaileei. Nola nahi ere, esleipena egiteko aukeratutako eskaintza aurkeztu duen lizitatuzaileari atxiki egingo zaio bermea, behin betiko bermea eratzeko duen arte, eta inkautatu egingo zaie esleipena egin aurretik proposamena justifikaziorik gabe erretiratzen duten enpresei.

B.- Behin betiko bermea.

Hori eskatzea ala ez, ezarriko da Plegu honen **Karatulako 28. paragrafoan**.

Ekonomikoki eskaintza onuragarriena aurkeztu duen enpresa lizitatuzaileak behin betiko bermea eratu beharko du Plegu honen **Karatulako 27. paragrafoan** adierazitako epean, behin betiko bermea aurkezteko errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktatzen hasita.

Behin behineko bermea eratu daiteke SPKLTBeko 96. artikulua ezarritako moduetako edozeinetan (Plegu honen **VI., VII. eta VIII. eranskinetan** dauden ereduaren arabera).

Aldi baterako enpresarien elkartearen denean, helbide sozialak eta parte hartzen duten enpresen IFK zehaztu beharko dira. Halaber, behin betiko bermea batasuneko enpresa batek edo batzuek eratu dezakete, betiere guztira karatulan eskatutako zenbatekora iristen bada.

Behin betiko bermea eskatzen denean, horrek erantzun die SPKLTBeko 100. Artikuluan aipatzen dituen kontzeptuei.

Behin betiko bermea berriz jartzeko eta egokitzeko araubidea izango bada SPKLTBeko 99. Artikuluan ezarritakoa.

Ez da bermerik itzuli edo ezereztuko harik eta berme-epea amaitu eta dena delako kontratua behar bezala bete arte, edota kontratistak erorik gabe kontratua suntsiarazi arte, edo Plegu honen Karatulako 35. paragrafoan dagoena gertatu arte. Tramitazioa doitu da SPKLTBeko 102. artikuluan ezarritako arauetara.

Kontratuaren zati baina jasotzen ez denean, bermearen hein bereko zatia itzultzeko edo ezerezteko eska dezake kontratistak, baina Plegu honen Karatulan berariaz hala onartuta dagoenean bakarrik.

Kontratuen lagapena egiten denean, lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea.

9. klausula – Kontratazio espedientearen izapidetzea.

Kontratazio espedientearen izapidetzea izango da arrunta, presazkoa edo larrialdikoa, Plegu honen **Karatulako 13. paragrafoan** aipatzen denaren arabera.

Presazkoa.- Presazkotzat jotako espedienteak espediente arruntaren prozedura berari jarraituz izapidetuko dira, baina berezitasun hauek izango dituzte:

- a) Presazko espedienteek lehentasuna izango dute izapidetean parte hartzen duten organoek bideratuak izateko; organo horiek BOST (5) EGUNEKO epea edukiko dute dagozkien txostenak eta izapidetza egiteko
- b) Esleipen-prozedura hastea erabaki ondoren, erdira ekarriko dira lege honetan kontratuaren lizitazioa, esleipena eta formalizazioa egiteko ezarritako epeak, SPKLTBeko 156. artikulua lehenezko lehenbiziko lehenbiziko kontratua formalizatzeko itxaronaldi gisa ezarritako hamabost egun balioduneko epea izan ezik.
- c) Administrazioak erabaki dezake kontratuari hasiera ematea, nahiz eta hori formalizatu gabe egon, baldin eta, dagokion bermea eratu bada.
- d) Kontratua gauzatzen hasteko epea ez da HAMABOST (15) EGUN BALIODUN baino luzeagoa izango, formalizatzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori gaindituko balitz, aukeran izango da kontratua suntsiaraztea, kasu batean izan ezik: kontratua gauzatzen hasteko epea atzeratzeko arrazoia ez denean administrazio kontratatzaileak eta kontratistak eragindakoa, eta ebazpen arrazoituan horrela jasota dagoenean.

Larrialdikoa.- Presazkotzat jotako espedienteak honako salbuespen araubidea izango du:

Kontratazio-organok agin dezake, administrazio-espedientearen izapidetzeko beharrik gabe, gertatutakoa konpontzeko edo gerora sortutako beharri erantzuteko behar den oro egitea, edo objektua libreki kontratatzea, osorik edo partez, lege honetan ezarritako betebeharrak.

formalen pean egon gabe, eta are kreditu nahikoa izateko betebeharririk gabe ere. Erabaki horrekin batera, dagokion kreditu-atxikipena aurkeztu beharko da, edo, bestela, kreditua aldatzeko espedientea hasita dagoela justifikatzeko dokumentazioa.

Prestazioak gauzatzeko epea ez da hilabete baino luzeagoa izango, aurreko paragrafoan aurreikusitako erabakia onartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori gaindituz gero, prestazio horiek kontratatzeko, prozedura arrunta izapidetu beharko da.

10. klausula – Bide elektronikoak.

Onartuko da erabiltzea bide elektronikoak, euskarri elektronikoak informatikoak edo telematikoak proposamenak eta dokumentuak aurkezteko, eta bai jakinarazpenetan eta komunikazioetan kontratazio organoaren eta interesatuen artean, horrela aipatzen bada **Karitulako 14. paragrafoan**.

Atala horretan plataforma informatikoa aditzera ematen da, non, kasua bada, programetan eta beharrezko lizitzatzeko eta iragarki ohol elektronikoan sartzeko.

BIGARREN KAPITULUA.- LIZITAZIOA.

11. klausula – Esleitzeko prozedura eta eskaintzen eskaera.

Kontratua esleituko da prozedura **irekian** SPKLTBeko 109., 138, 157., 158., 159., 160. eta 161. artikuluek xedatzen dutenaren arabera, eta horren arrazoi frogagarria aipatuta dago **Karitulako 18. paragrafoan**.

12. klausula – Kontratuaren alderdiak balioztatzea.

SPKLTBeko 150. Artikuluari jarraiki, proposamenak balioztatzeko eta ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den zehazteko Pleguaren **Karitulako 20. paragrafoan** aipatzen direnak hartuko dira kontuan.

13. klausula – Proposamenak aurkeztea.

Proposamenak aurkeztuko dira agirian adierazitako forma, epe eta tokian.

Enpresari bakoitzak proposamen bat baino ezingo du aurkeztu. Halaber, ezingo du beste lizitzaile batzuekin batera aldi baterako elkarrekin eginez proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarrekin bat baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

Proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresaburuak baldintzarik gabe onartzea Plegu honen klausula eta Preskripzio Teknikoen baldintza horien eduki osoa, inolako salbuespenik edo erresalburirik gabe.

14. klausula – Berdintasuna, gardentasuna eta Isilpekotasuna

Kontratazio organoak berdintasunez tratatuko ditu lizitzaileak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun printzipioaren arabera jardungo du.

Kontratazio organoek ezin izango dute enpresaburuak isilpekotzat jotako informazioa ezagutarazi, hargatik eragotzik gabe esleipenaren publizitateari buruz eta hautagai nahiz lizitzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLTBean ezarritako xedapenak. Isilpekoak izango dira, bereziki, sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen isilpeko alderdiak. Hautagai nahiz lizitzaileek Plegu honen **XIV. Eranskinean** ereduak erabiliko dute.

Kontratastak isilean gorde beharko du pleguetan edo kontratuan isilean gorde beharrekotzat jotako informazioa, kontratuaren gauzatzea dela-eta eskura dezakeena. Betebehar hori informazioaren berri izan eta BOST (5) URTEz egongo da indarrean, non eta kontratuak edo pleguek ez duten epe luzeagoa ezartzen.

15. klausula – Proposamenen forma eta edukia.

Proposamenak **HIRU (3) GUTUN-AZAL** itxian aurkeztu behar dira lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatuta, eta gutun-azalean kanpoaldean agertu behar dira erreferentzi zenbakia eta zein lizitazioaren aurkezten diren kontratuaren izena (**DERIOKO UDALAK ANTOLATURIKO EKITALDIENTZAKO AZPIEGITURAK ALOKATZEKO ETA INSTALATZEKO KONTRATUA**), adieraziz lizitatzaillearen izen-abizenak edo enpresaren sozietate izena, posta helbidea, telefonoa, faxa eta dagokion NAN edo IFK. Gutun-azalaren barruan aurkeztuko da dauden dokumentuen zenbakizko erlazioa. Gutun-azalak honela banatuko dira::

A) GUTUN-AZAL 1 «DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA» gutun-azal honetan titulu hori idatziko da, eta derrigorrez honako dokumentuak edukiko ditu:

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEA.

Ekintzaileen aldeko eta euren internalizazioari buruzko irailaren 27ko 14/2013 Legeak idatzitako SPKLTBeko 146. 6 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, 1. zenbakiko KARTAZALAK erantzukizunpeko adierazpena edukiko du, horretan lizitatzailleak adierazi behar du kontratatze baldintzak betetzen dituen eta Plegu honen **I. Eranskinaren** arabera SPKLTBeko 146.1 artikulua aipatzen dituen dokumentuak dauzkala.

Erantzukizunpeko adierazpenak adierazten dituen dokumentu ea frogagiri horiek, eta baita jarduteko gaitasuna, nortasuna eta ordezkaritza egiaztatze dokumentuak ere, horiek behar izanez gero, bai jatorrizko dokumentuetan bai kopietan, aurkeztu beharko ditu lizitatzailleak, baldin eta horiek eskatzen bazaizkio kontratuaren esleipena egiteko. Eskatuko zaion dokumentazioa eta SPKLTBeko 146.1 artikulua eskatzen duen dokumentazioa ez baditu aurkezten, errekerimendua egingo zaio hurrengo lizitatzailleari esleipen akordioa formalizatu arte.

BEHIN-BEHINEKO BERMEA.

Karitulako 24. paragrafoan ezarritako behin-behineko bermea (bere diru kopurua) bete izanaren frogagiria.

B) GUTUN-AZALA “2”: JUDIZIO-BALIOEN MENPEAN AUDEN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK ETA HOBKUNTZAK».

Gutun-azal honetan aurkeztuko dira eskaintza ekonomikoa eta lizitatzailleak egoki uste dituen hobekuntzak, Pleguaren **Karitulako 20. paragrafoan** aipatzen diren balio judizioaren arabera irispideei buruz.

Halaber, Karitulako 32. paragrafoan eskatzen bada, 2. Zenbakiko gutun-azalean ezarrita egonez gero, kontratuaren zein atal azpikontratatzeko asmoa duen zehaztu behar du eskaintzan. Lizitatzailleak. Kontratuaren atal horren zenbatekoa ere adierazi behar dute, eta azpi-kontratastaren izena edo enpresaburu-profila ere eman behar dute, gaitasun profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua.

C) GUTUN-AZAL “3 “: ESKAINTZA EKONOMIKOA

Proposamen ekonomikoa aurkeztuko da Plegu honen II: Eranskinen dagoen eredu erabiliz. eta Administrazioak derrigorrez jakin beharreko datuak ikustea eragozten duten kontraesanak, gabeziak, akatsak edo zirriborroak badituzte. Proposamenen bat ez badator

bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazioaren gutxieneko prezioa baino txikiagoa bada, ezarritako eredia nabarmen aldatu badu edo proposamenaren zenbatekoan akats adierazgarria egin badu, edo lizitatuak onartzen badu hori bideraezin bihurtzen duen akats edo hutsen bat dagoela, kontratazio Mahaia edo kontratazio organoak baztertu egingo du, aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko.

16. klausula.- Balio anormalak edo neurrigabeak dituzten eskaintzak

Eskaintzek balio anormal edo neurrigabeak dituztela zehazteko kontuan hartuko da SPKLTBeko 152. artikulua xedatzen duena, baldin eta Plegu honen Karatulako 26. paragrafoan parametroak jarrita daude esateko eskaintzak balio anormal edo neurrigabeak dituen ala ez.

17. klausula – Prozedurako enpresaren ondorengotza.

Prozedura izapidetzen den bitartean, eta esleipena burutu baino lehenago, lizitatu edo hautagai den enpresa baten nortasun juridikoa azkendu egiten bada enpresaren ondarea beste batenarekin edo batzuenarekin batu delako, edo zatitu delako, edo eskualdatu delako, prozeduran haren ondorengo izango dira sozietate xurgatzaileak, bat-egitetik sortu direnak, zatiketaren onuradun izan direnak, edo ondarea edo dena delako jarduera adarra eskuratu dutenak, betiere, horretarako gaitasuna izanik, kontratatzeke debekurik ez duela eta kaudimena eta gaitasuna nahiz sailkapena badituela egiaztatzen badu, esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio-klausula zehatzen pleguan eskatutako baldintzak Beteta.

18. klausula – Aurkeztutako dokumentazioaren sailkapena, hautatzeko irizpideen balorazioa eta proposamenak irekitzea eta aztertzea.

Karatulako 25. paragrafoaren arabera Kontratazio Mahaia eratu bada, horrek edo kontratazio organoak dokumentazioaren kalifikazioa egingo du eta hautatzeko irizpideak ezarriko ditu SKPLTBeko 145. eta 146. artikuluen xedatzen dutenaren arabera, eta gutun-azalak ireki eta Karatulako 20. Paragrafoan ezarritako alderdiak balioztatuko ditu, haiek zehaztutako forman eta ordenan.

19. klausula – Esleipen proposamenaren ondorioak. Kontratuari uko egitea edo atzera egitea.

Kontratazio mahaiaren esleipen proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako enpresariari administrazioaren aurrean, kontratazio organoak ez badu proposamenaren arabera esleitzen.

Kontratua esleitu aurretik, kontratazio organoak uko egiten badiu kontratuari edo prozedura atzera botatzen badu, lizitatuak ebazpena jakitera ematen dienean konpentsazioaren berri emango die, hau da, lizitazio gastuengatik ordaindu beharreko konpentsazioa.

HIRUGARREN KAPITULUA. ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA.

20. klausula – Esleipen proposamena eta kontratua esleitzea.

Kontratazio Mahaiak (eratu bada) edo kontratazio organoak proposatuko du esleipena egitea eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitzaileari, onuragarriena ekonomikoki, teknikoki eta Administrazio Baldintza Berezien Agiri honetan ezarritako hobekuntzen aldetik, eta, halaber, ebaluatu eta normalaz edo neurritz kanpokotzat jo gabeko proposamenak handienetik txikienera sailkatuko ditu.

Bi proposamen edo gehiago berdinak badira alderdi ekonomikoetan eta administrazio baldintza berezien agirian ezarriko baldintzetan, esleipenean lehentasuna izango du, 100eko 2 baino desgaitasun gehiago duena bere plantillan, nahiz eta Plegu honetan "Plantillan desgaitasuniki eduki behar duten enprekin kontratazio baldintzak" izeneko 34. karatulan ezarritako betekizuna ez eduki, bere kaudimen teknika egiaztatzerakoan langileen kopurua 100eko 2 baino gehiago izatea. Zirkunstantzia hori aplikatzean, lizitzaileek frogatuko dute lan kontratuak eta Gizarte Segurantzari kotizazio-dokumentuak aurkeztuz. Enpresa lizitzaile bat baino gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada proposamenik onuragarriari dagokionez, eta horiek guztiek desgaitasunen bat duten langileak badituzte plantillan 100eko 2 baino proportzio handiagoan, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen portzentaje handiena duen lizitzaileak izango du kontratua esleitzeko lehentasuna. Zirkunstantzia berberetan daudenean, esleipenean lehentasuna izango du gizarte bazterkeriaren arriskuan dauden pertsonen insertzio laborala sustatzen duen enpresaren eskaintzak, betiere konpromisoa hartzen badu bere lanpostuetan ehuneko 30 baino gehiago SPKLTBeko laugarren Xedapenaren 2. paragrafoan aipatutako kolektiboko pertsona izatea, eta horren egoera frogatuko dute gizarte zerbitzu eskudunek. Aurreko zirkunstantziak kontuan hartu ondoren, bi proposamen edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, esleipen proposamena zozketaz egingo da.

Administrazio Baldintza Ekonomikoen Agiriaren arabera, ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitzaileak karatulako 27. paragrafoan adierazitako epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik, frogatu beharko ditu honako baldintzak:

A.- DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA:

1.- Jarduteko gaitasuna.

- 1.1.-** Lizitzailea pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketa edo aldaketa eskrituraren bidez, aplikatzekoa zaion merkataritza legeriak hala agintzen duenean. Ez bada, beharrezkoa, eraketa eskritura edo agiriaren, estatutuen edo eraketa egintzaren bitartez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, hala badagokio, bere jarduera erregulatzen duten arauak bilduko dituztenak eta dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo direnak, eta baita Identifikazio Fiskalaren Kodea (IFK). Frogagiri horiek jatorrizkoak edo kopiak izango dira baina izaera autentikoa izango dute indarreko legeriaren arabera, edo horretarako eskumena duen funtzionarioak egindako fotokopia konpultsatua. Dokumentu horiek araubide juridiko zehatza izango dute proposamena aurkezten den momentuan.
- 1.2.-** Banakako enpresa bada, NAN edo horren ordeko erregelamendatuta, kopian aurkeztuko da eta kopiak izaera autentikoa izango du indarreko legeriaren arabera, edo horretarako eskumena duen funtzionarioak egindako fotokopia konpultsatuta.
- 1.3.-** Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresak edo Europar Ekonomia Eremukoak badira, jarduteko gaitasuna frogatuko dute erregistro profesionalean edo merkataritzako erregistroan inskribatuta daudenaren dokumentua erabiliz, beti ere, baldintza hori eskatzen badu Estatuko legegintzak, edo Administrazio Publikoko

Kontratuen Araudiaren I. Eranskinean aipatzen diren ziurtagiriak aurkeztuz zerbitzuen kontratuatarako.

Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek sektore publikoarekin kontratatzeke gaitasuna izango dute, baldin eta enpresek ezarrita dauden estatuko legeen arabera dena delako prestazioa gauzatzeko gaikuntza badute. Estatu batek bere lurraldean ezarrita dauden enpresei baimen bereziren bat izatea edo organizazio jakin batekoak izatea eskatzen badie bertan dena delako zerbitzua emateko, enpresek egiaztatu egin beharko dute betetzen dutela baldintza hori.

- 1.4.-** Aurreko paragrafoan sartuta ez dauden atzerriko enpresek aurkeztu beharko dute Espainiako Diplomaziako Misió Iraunkorraren txostena, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletzeko Bulegoaren txostena, bertan adieraziko dute tokian tokiko lanbide edo merkataritza erroldan edo antzekoren batean izena emanda daudela, edo bestela, egunerokoan kontratuaren xede diren bertako jardueretan aritzen direla.

Era berean aurkeztuko dute Espainiako Diplomaziako Misió Iraunkorraren txostena edo Espainiako "Secretaría de Comercio Exterior del Ministerio de Industria, Turismo y Comercio" delakoaren txostena, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Hitzarmena sinatutako elkarrekikotasunari buruzko txostena, edo alderantziz denean, SPKLTBeko 55. Artikuluak aipatzen duen elkarrekikotasun txostena.

- 1.5.-** Enpresa edo lanbide gaikuntza frogatu beharko da, kasua denean, **Karatulako 16. paragrafoan** eskatutakoaren arabera, salbu, sailkapen ziurtagiria aurkeztu bada, eta horretan gaikuntza hori jasota badago.
- 1.6.-** Enpresa atzeritarrek aurkeztuko duten dokumentazioak ofizialki gaztelerara itzulita egon beharko du.

2.- Ahalordeak.

Beste baten izenean aurkeztu denak edo beste baten orde proposamenak sinatzen dituenak edo pertsona juridiko bat ordezkatzeko duenak ordezkapenaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, indarreko Letratu batek egin edo Idazkari Orokorrek egin. Ziurtagiri horiek jatorrizkoak edo kopia konpultsatuek izango dira. Era berean, ahalorde edo ordezkatzeko duen pertsonaren NANaren fotokopia konpultsatua aurkeztuko du. Frogagiriak delegazio iraunkorra badauka, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da.

3.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioari eta tekniko edo gaitasun profesionala.

Frogagiria

Karatulako 17. paragrafoan eskatzen den sailkapena duela ziurtatzen duen frogagiria aurkeztu beharko da. Enpresa sailkapena eskuratzeko zain baldin badago, sailkapena lortzeko eskabidea egin duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du, eta eskatutako sailkapena lortu duela egiaztatu beharko du, Lege hau garatzeko arauetan agiritako akatsak eta hutsak zuzentzeko ezarritako epearen barruan.

Kontratuaren objektu den prestazioaren zati bat gaikuntza edo lanbide-baimen jakin bat behar duten enpresa espezializatuek egin behar badute eta sailkapena eskatzen bada, espezializazio horri dagokion taldean sailkatuta egon ordez, enpresaburuak konpromisoa har dezake zati hori azpikontratatzeke eta, beraz, beharrezko gaikuntza eta, hala badagokio, sailkapena duten beste enpresaburu batzuen esku uzteko, baina enpresaburu horiek gauzatu beharreko zatiak kontratuaren prezioaren 50eko 0 gainditzen ez badu bakar-bakarrik.

Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek, ez badaude sailkatuta Espainian, aurkeztu beharko dute, sailkapenaren ordezkari, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa, **Karatulako 17. paragrafoan** kontratazio organoak eskatuta, hori guztia kalterik egin gabe SPKLTBeko 84. artikuluan ezarritakoari, Europar Batasuneko sailkapen ziurtagiriari buruzkoa dena.

Enpresa-sailkapena egiaztatzeko obligazioa ez bada Karatulan jartzen, Lizitatuzaileek euren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, tekniko edo profesionala egiaztatu beharko dute lizitazioaren iragarkian eta **Karatulako 17. paragrafoan** aipatzen diren bitartekoak erabiliz.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresaburua beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahal izango da, erakunde horiekin dituen harremanen izaera juridikoa dena dela ere, eta, betiere, kontratua gauzatzeko behar diren bitarteko horiek badituela egiaztatzen badu.

Kontratazio organoak, enpresariak emandako datuen isilpekotasun izaera errespetatuko du.

4.- Talde bereko enpresen zerrenda, sozietate-talde bateko pertsona juridikoak direnean

5.- Plantillan desgaitasunen bat eduki behar duten enpresen adierazpena

Erantzukizunpeko adierazpena, Plegu honen **XI. Eranskinean** dagoen ereduaren arabera, esleipenduna izanez gero, Plegu honen «Plantillan desgaitasun langileak edukitzeko beharra duten enprekin kontratuak egiteko neurriak» 34. klausulan aipatutakoaren bat etorriz, konpromisoa hartzen du, kontratua indarrean dagoen bitartean, desgaitasun langileak izateko plantilan, gutxienez, 100eko 2an portzentajea, eta horrelako langileen kopurua 50 edo handiagoa bada eta kontratistak baldintza hori nahitaez bete behar badu, Minusbaliatuak Gizarteratzearen apirilaren 7ko 38.1 artikulua arabera, edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuak araututako neurri ordezkariak hartzea. Erantzukizunpeko adierazpen horretan obligazioa hartuko du goian aipatutako betekizuna betetzeko, kontratazio organoaren aurrean frogatzeko goian aipatutako betekizuna betetzen duela, hark eskatzen dionean kontratua indarrean dagoen bitartean, beti behin betiko bermea itzuli aurretik.

6.- Enpresaburuen aldi baterako elkarteak.

Esleipena egin aurreko fasean, aldi baterako elkarteak eraginkorra izan dadin, enpresari guztiak administrazio aurrean aurkeztu beharko dituzte klausula honetan eskatzen diren dokumentuak, gainera, elkartasuneko konpromisoaren idazkia ere aurkeztuko dute, bakoitzaren izenak eta zirkunstantziak adieraziz; aldi baterako elkarteak eratuz lehiatzen diren enpresaburuek betebeharrak solidarioak izango dute, eta enpresaburuen elkartearen izenean ordezkari edo ahalgabetatutako bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko kontratua azkendu arteko ahalorde askirekin. Dokumentu hori sinatuta beharko dute elkarteak osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariak (**I. Eranskinaren ereduak**)

Aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, tekniko edo profesionalari dagokionez, elkartearen kide bakoitzaren izaerak metatuko dira. Sailkapena eskatuz gero, horien metatze erregimena izango da Administrazio Publikoko Kontratuen Araudiaren 51. eta 52. artikuluek ezartzen dutena.

Aldi baterako elkarteetan enpresari nazionalak, Batasunaz kanpoko atzerritarrek edo Batasuneko atzerritarrek parte hartzen badute lizitazioan, lehenengo biek zerbitzuetarako kontratista-sailkapena frogatu beharko dute. Eta azkenek, euren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, tekniko edo profesionala.

Kontratua esleitzen bazaio enpresaburuen aldi baterako elkarte bati, horrek bere eraketa frogatuko du eskritura publikoaren bidez, eta berari emandako IFK ere egiaztatuko du, hori guztia frogatuko beharko du kontratua formalizatu aurretik. Enpresaburuen aldi baterako elkarte horrek kontratua azkendu arte iraungo du.

7.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa.

Atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatzekoa baldin bada, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta, kasua suertatuko balitz, lizitatzailari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egitea.

EGIAZTATZEA LIZITATZAILEEN ERREGISTROAK EMANDAKO ZIURTAGIRIA ERABILIZ.

Pleguaren 1., 2. eta 3. puntuetan aipatzen diren datuen komunikazioaren ordean, ondoko erregistroek emandako ZIURTAGIRIA aurkeztu ahal izango da:

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala,
2. Estatuko Lizitatzaileren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria (hala egokituz gero),edo
3. Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiria.

Ziurtagirian ez aipatutako zirkunstantziak direnean eta beharreko erregistroan aurkezten direnean, eskatutako dokumentuen frogagiriak aurkeztuko dira..

Dena den, agiri horrez gain, lizitatzaileren erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da, ziurtagiri horretan jasotako datuak ez direla aldatu adieraziz (Agiriaren V. Eranskinean dagoen eredia erabiliz).

B.- ZIURTAGIRI POSITIBOA ZERGA ADMINISTRAZIOAREN ESTATU AGENTZIAK EDO FORU OGASUNAK EGINA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO KONTRATUEN ARAUBIDEAREN 13. ARTIKULUAK ESKATZEN DITUEN BALDINTZAK BETETZEN DITUELA EGIAZTATZEN DUENA OROKORREAN.

C.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA.

Jatorrizko agiria edo kopia behar bezala kautotuaren bidez justifikatu beharko da Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta emanda egotea, behintzat kontratua formalizatu orduko. Zerga horri dagokion agiria edo azken ordainagiria aurkeztu beharko da, baita zerga horren matrikulan baja ez duela eman esanez egindako erantzukizunpeko adierazpena ere.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan salbuetsita dauden subjektu pasiboek erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko dute salbuespenaren arrazoia azalduz. Tokiko Ogasunen ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren 5. Artikuluak ezartzen dituen salbuespenen batean egonez gero, salbuespen egoera hori egiaztatu beharko dute emandako berariazko ebazpenak aurkeztuz.

Enpresen taldeek eta enpresen aldi baterako elkarteek zerga horretan alta egiaztatu beharko dute, dena den, horrek ez du galaraziko dena delako talde edo elkarteak eratzten duten enpresei dagokien tribulazioa.

D.- ZIURTAPEN POSITIBOA, GIZARTE SEGURANTZAK LUZATUA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTRATUEI BURUZKO ERREGELAMENDUAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATUZ, ALEGIA.

E.- BEHIN BETIKO BERMEA ERATU DELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA, Plegu honetako VI., VII. eta VIII. Eranskinetan dauden ereduak erabiliz.

F.- ENTITATE ASEGUATZAILEAREN ZIURTAGIRIA EGIAZTATUZ KONTRATISTAK HARPIDETU DUEN ASEGURU POLIZA INDARREAN DAGOELA KARATULA HONETAKO 28. PARAGRAFOAK EZARRITA DAUDEN KOBERTURAN, IRAUNALDIAN ETA BALDINTZETAN, ETA URTEKO PRIMA ORDAINDUTA DUENAREN ZIURTAGIRIA EDO FROGAGIRIA KONTRATUA INDARREAN DAGOEN BITARTEAN. Plegu honetako XIII: Eranskinean dagoen eredu erabiliz.

G.- ESLEIPENDUNA ENPRESARIEN ALDI BATERAKO ELKARTEA BADA, ELKARTEAREN ERAKETARI BURUZKO ESKRITURA PUBLIKOA AURKEZTU BEHARKO DA, ERA BEREAN, ELKARTEKO ENPRESA BAKOITZAK EGIAZTAGIRI POSITIBOA AURKEZTUKO DU OGASUN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO ARLOARI BURUZ ETA JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

H.- ESLEIPENDUNAK KONPROMISOA HARTZEN BADU GIZARTE BAZTERKETAKO PERTSONAK KONTRATATZEKO, AIPATUTAKO EPEAN HONAKOAK AURKEZTU BEHARKO DITU: HERRI GIZARTE ZERBITZU ESKUDUNEK EGINDAKO TXOSTENAK EGOERA HORRI BURUZ, LAN KONTRATUAK ETA GIZARTE SEGURANTZARI KOTIZAZIOAREN DOKUMENTUAK

I.- KONTRATUA GAUZATZEKO ERABILI BEHARREKO BITARTEKOAK BENETAN DITUELA ZIURTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA, SPKLTBeko 64.2 ARTIKULUAREKIN BAT ETORRIZ,horretarako Plegu honen X. Eranskinean dagoen eredu erabiliko da.

Aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren eta behin betiko egin eratu ondoren, dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita BOST EGUN BALIODUNen barruan esleipena arrazoitu egin beharko da, hautagaiei eta lizitatzailerei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta SPKLTBeko 151.4 artikulua duen informazioa izango du. Jakinarazpenean behar bezainbesteko informazioa eman beharko da, kanpoan utzitako edo baztertutako lizitatzaileri edo hautagaiari, 40. artikulua arabera, esleipen-erabakiaren aurka arrazoitutako errekurso apoderatua

bat jartzea ahalbidetzeko

Kontratua esleitu ondoren eta errekursoak jartzeko epea agortu eta ez bada horrelakorik jarri, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesdunen eskura egongo da. Horiek dokumentazioa ez badute esleipena jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita hiru hilabeteko epean, Administrazioak ez du hori zaindu behar gehiago.

21. klausula - Aseguruak.

Kontratista behartuta dago aseguru poliza harpidetzeko, kontratazio organoak aurretik onartu dituen konpainiekin, **Karatulako 38. paragrafoan** adierazita daudenekin. Paragrafo horretan polizaren honako datuak adierazita daude: kontzeptuak, zenbatekoak, iraupena eta baldintzak.

22. klausula – Kontratua burutzea eta kontratua formalizatzea.

a) **Erregulazio harmonizatuko kontratuak,** kontratua burutuko da dokumentu administratiboan. Nolanahi ere, ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita 15 egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Kontratazio-organoak, aurreko lerrokadan aurreikusitako epea igarotakoan eta, betiere, epe horretan, kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsorik jarri ez bada, esleipendunari eskatuko dio formaliza dezala kontratua, gehienez ere bost eguneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren ondorengotik kontatzen hasita.

Kontratua eskritura publikoko bihurtzeko eskatzen badu kontratistak, bere kontura izango dira eskritura publikoa egiteak sortutako gastuak. Eta kasu horretan, Kontratistak Administrazioari eman beharko dio formalizatu egunetik hilabetera, gehienez, dokumentu horren kopia legitimatua eta soila.

- c) **Erregulazio harmonizatukoa ez den kontratua** kontratua burutuko da dokumentu administratiboan, baina beti esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita 15 egun balioduneko epe barruan, SPKLTBeko 151.4 artikulua jartzen duen moduan.

Kontratua eskritura publikoko bihurtzeko eskatzen badu kontratistak, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak. Eta kasu horretan, Kontratistak Administrazioari emango beharko dio formalizatu egunetik hilabetera, gehienez, dokumentu horren kopia legitimatua eta soila.

LAUGARREN KAPITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA.

23. klausula – Lanak hastea

Lanen hasierako akta sinatzen den egunaren biharamunetik hasiko dira lanak ofizialki, eta Akta hori ez bada betetzen hasiko dira kontratua formalizatzen den egunaren biharamunetik

Presakotasun espedienteetan, gauzatzeko epea kontatuko da Administrazioak agintzen denetik, eta presakotasuna ez denean, esleipen-jakinazpena jasotzen den egunaren biharamunetik eta kontratistak behin betiko bermea eratzen denetik.

24. klausula – Kontratuaren arduraduna

Kontratazio organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du. Pertsona horrek esleitu dizkieten ahalmenen barruan, kontratua nola betetzen den ikustatuko eta zuzenduko du, eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala gauzatzeko delat bermatzeko. Kontratuaren arduradunak eta bere kolaboratzaileek sarrera libre izango dute kontratatutako prestazioa ematen den tokira sartzeko, kontratistak izendutako pertsonarekin lagunduta.

Kontratazio organoak izendatuko duen ordezkaria aipatuko da **Karitulako 29. paragrafoan**.

25. klausula – Kontratua betetzea.

Kontratistak arriskua eta mentura bere gain hartuz jardungo du kontratua.

Kontratua, Preskripzio Teknikoen Agirian, Plegu honetan eta **Plegu honen Karitulako 4 paragrafoan** jasotako guztiei estu-estu lotuta gauzatu da, kontratu-izaera izanez gero, Administrazioak kontratistari idatziz emango dizkion jarraibideen arabera, horiek gauzatzekoan edo horiek interpretatzerakoan.

Hitzartutakoa, bere edozein terminotan, bere eranskinak edo jarraibideak, pleguak edo administrazioak onetsitako arauak ez jakin arren kontratistak horiek bete behar ditu.

Kontratistak berak hartu beharko du egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen kalitate teknikoaren erantzukizuna, eta, zer edo zer egin gabe utzi duelako, edo akatsak direla-eta, metodo traketsak direla-eta, edo amaiera txarra dela-eta administrazioari edo beste inori ondorioak eragin bazaizkio, orduan ere kontratistarena izango da erantzukizuna.

Zerbitzua gauzaterakoan, kontratu honen xedeko azpiegiturei kalteak egiten bazaie, Administrazioak ez die erantzun behar horiei, kalteak kontratistaren kontura izango dira.

26. klausula – Lanak akatsekin edo txarto gauzatzea.

Karitulako 35. paragrafoan ezarritako berme-epea agortu arte, kontratistaren ardurakoak dira: lanak behar bezala gauzatzea eta lanen akatsak, nahiz eta akatsak berehala ez izan, edo, Administrazioak lanak aztertu edo horik konprobatu, balioztatu edo ziurtagiri partzialak onartu arren.

Enpresa esleipendunak ez du inolako erantzukizunik izango lan akasduna edo gaizki gauzatutakoa Administrazioak emandako agindu baten ondorio zuzena eta berehalakoa bada.

Kontratuaren objektu den prestazioa akatsez gauzatzeagatik honelako zigorrak jarriko dira:

- Lanen harrera egitean, prestazioak ez badu bat egiten ezarritako preskripzioekin.
- Arau oroko gisa, bere zenbatekoa izango da kontratu-aurrekontuaren %1a, salbu, arrazoituan, ez betetzea larria edo oso larria denean, kasu horietan %50era arte izan daiteke, edo legeak ezarritako %10era arte, hurrenkeraz. Berrito ez betetzea kontuan hartuko da larritasuna balioztatzeko.
- Nolanahi ere, kontratistak zigorrak baitu ere, akatsak konpondu beharko ditu legeak horrelako betekizuna jartzen diolako.

27. klausula – Epea betetzea.

Kontratistak, beraz, kontratua gauzatzeko finkatutako guztirako epearen barruan bete behar du kontratua, edo, kontratua hurrenez hurren gauzatu behar denean, hurrenez hurrengo epe partzialen barruan.

Kontratista berandutze-egoeran sartzeko ez da behar administrazioak, aldezturik, betetzeko agindua ematea.

Berandutze kasuan ondoko biak berezitu dira:

- a) Baldin eta kontratistak, berari egoz dakizkiokeen kausak direla eta, azken epea edo epe partzialak betetzeko orduan berandutze-egoeran jarri bada, administrazioak aukeran izango du, edo kontratua suntsiaraztea, edo zigorrak ezartzea, proportzio honetan: kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euro, eguneko, baldin eta ez badira zigor ezberdinak jarri **Plegu honen Karitulako 33. paragrafoan**.

Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordainduko beharrekotik dagokion zenbatekoa kenduz gauzatuko dira edo, hala badagokio, eraturako bermetik, aipaturako ziurtapen horietatik kendu ezin direnean.

- b) Baldin eta atzerapena kontratistari egoztekoak ez diren zioengatik sortu bada, eta, izendatu zitzaion denbora luzatuz gero bere konpromisoak beteko dituela agintzen badu, administrazioak emango dion epea lehen galdutako denboraren bestekoa izango da gutxienez, kontratistak berak epe laburragoa eskatu ezik.

28. klausula – Kontratistari ordaintzea eta epeak ordaintzeko.

Esleipendunak eskubidea izango du egindako prestazioa, Administrazioak jasota, ordaindakion.

Lanen harrera egiten den egunetik hilabetera, kontratuaren likidazioa erabaki eta kontratistari jakinarazi eta ordaindu beharko zaio.

Ordainketa egingo da **Karitulako 30. paragrafoaren** arabera.

Atzerapen erregimena izango da SPKLTBeko 217. artikulua xedatzen duena.

Kontratistak eskubidea izango du, orobat, kontrako ordainketak izateko **Karatulako 30. paragrafoan** ezarritako baldintzetan, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 232. artikuluan ezarritako erregimen, muga eta bermeen arabera, eta (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu) Administrazio Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Araudi Orokorraren 155., 156. eta 157. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Kontratistak hirugarren bati laga diezaioke, legeak ezarritako edozein baliabide erabiliz, kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea, baina, lagapen horrek ondorioak izan ditzan, lagapen-akordioa azkenari jakinarazi beharko zaio.

29. klausula - Fakturak.

Kontratistak egindako fakturek, Plegu honen **Karatulako 30. paragrafoan** aipatutako baldintza eta betekizun guztiek jasoko dituzte.

30. klausula – Prezioak berrikustea.

Presioak berrikusiko dira **Karatulako 31. paragrafoan** ezarritakoaren arabera eta Kontratu Publikoen Legearen Testu Bateginaren 89. eta ondorengo artikuluek xedatzen dutenaren arabera. Dena den, gauzatutako lehenengo 100eko 20a eta lehenengo gauzatzeko-urte berrikuspenetik kanpo gelditzen dira.

31. klausula – Lan- eta gizarte-betebeharrak.

Enpresa esleipenduna behartuta dago lanaren, gizarte segurantzaren, minusbaliatuak gizarteratzearen eta laneko arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzera, eta azken horiei dagokienez, konpromisoa hartzen du enpresa azpi-kontratatzailleek euren langileentzako indarrean dagoen legeria bete ditzaten

Zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren langileen ordainsariak kontratistari dagozkio, eta kostu sozialak eta/edo kostu laboralak kontratistak ordainduko ditu indarrean dagoen legeriaren arabera eta horri buruzko hitzarmenen arabera, Derioko Udala guztiz salbuetsita geratuko da kontratistaren eta bere langileen arteko erantzukizunean.

Zerbitzu-kontratuak azkentzen direnean, kontratuaren objektu diren lanak egin dituztenek ezin dute sektore publikoko ente, organismo edo erakundeko langile modura geratu, inola zere ez.

Kontratuaren objektu den zerbitzuari eragiten dion lan grabea izanez gero, esleipendunak kontratazio organoak errekeritzen dituen irtenbideak eman beharko ditu, hark finkatzen duen moduan eta epean, nahitaezko eta gutxieneko zerbitzuak bermatzeko, administrazio eskudunak eskatuta. Esleipendunak irtenbide horiek ez baditu ematen edo praktikara ez baditu eramaten, kontratuaren zuzendaritzak kontratuak sustatu ahal izango ditu onartutako gutxieneko zerbitzuak egiteko, eta esleipendunaren kontura izango dira, eta aipatutako kontratuen ordainketa egingo da bere fakturaziotik kentzen. Hirugarrenei kontratatutako lanengatik sortuko den ardura dagokio kontratistari, Plegu honetan kontenplatu diren ondorio guztietarako.

32. klausula – Bitarteko materialak eta giza baliabideak.

Kontratista, eta bereziki kontratua gauzatzeko arduradunen zerrendan daudenak, behartuta geratzen dira ekipoa eta baliabide laguntzaileak ematera eta mantentzera zerbitzua behar bezala gauzatzeko eta prestatzeko hitzartutako epeetan.

Enpresaren langileak kontratistaren menpean daude bakarrik, eta enplegatu izaerari atxikitsutako eskubideak eta betebeharrak baino ez dituzte edukiko.

Gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatuko du, hori bere plantillaren barruan egongo da, eta bere funtzioak izango dira:

- a) Kontratua gauzatzeko enpresa kontratatzaileak administrazioari egin behar dion edozein komunikazio hartzea eta transmititzea.
- b) Enpresak bete behar dituen betebeharrak betetzen dituela kontrolatzea, bereziki, langileak lantokira joatea eta oporrak izatea, kontratuaren xedeko zerbitzuan asaldurak ekiditeko.
- c) Administrazioari informatzea zein kontratistaren langile geratzen dira kontratutik kanpoan.

Kontratua gauzatzeko pertsonen izenak adieraziko ditu lan-plangintzan, eta horiek administrazioak eskatutako baldintzak beteko dituzte. Halaber, kontratuaren barruan dauden langile bakoitzari ordainsariaren orduko/zenbatekoa (euro) ere adieraziko du. Administrazioak momentu guztietan ziurtagiri eskatu ahal izango du, kontratuaren barruan dauden langile bakoitzak kobratzen duen orduko/zenbatekoa (euro) egiaztatzen duena.

Enpresa kontratatzaileak ezin izango ditu eskaintzan dituen langileak ordezkatu, administrazioaren berariazko baimenik gabe.

Administrazioak atzera bota dezake bere ustez egoki ez den edozein elementu, eta enpresak erreklamatzeko eskubidea izango du ebazpen horren kontra administrazioaren aurrean HAMAR (10) EGUN BALIODUNeko epean, administrazioak idatziz jakinarazten den egunetik

33. klausula – Bete beharreko hizkuntza baldintzak.

Kontratuaren xedeko ondorioak (azterlanak, txostenak, proiektuak...) aurkeztuko dira bi hizkuntz ofizialak erabiliz aurkeztuko da, beti ere honakoak gertatzen badira:

- Ondorio osoa edo horren zatia hiritarren artean zabaltzen denean, edo
- Kontratuaren xedeko hartzailea haurrak edo gazteak direnean.

Kontratuaren xedeko ondorioa elaboratzean hiritarrekin harreman zuzena badago, hiritarrak aukeratzen duen hizkuntza kontuan hartuko da, hizkuntza ofizial bien erabilera bermatuz euskarri eta jarduera guztietan, oinarritzkoak direnean harreman horretarako (inkestak, galdetegiak, eztabaia taldeak...). Horretarako, hiritarrekin harreman zuzena duten funtzioetarako benetako gaitasuna dutenak erabili beharko ditu kontratistak edo azpi-kontratistak funtzioak euskaraz garatzeko.

Kontratuaren xedeko jarduerari dagozkion esku hartze publikoetan euskara eta gaztelania erabiliko dira erabilera bereberean.

34. klausula – Plantillan desgaitasunik eduki behar duten enpresak.

Aipatutako betekizuna kontuan izateko erantzukizunpeko adierazpena egingo da Plegu honen **XI. Eranskin**ean dagoen eredia erabiliz. Hori erabiliko du ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerak, Plegu honen **Karitulako 27. paragrafoan** aipatzen den epean, SPKLTBeko 151.2 artikuluan aipatutako errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik.

Halaber, kontratistak egiaztatu behar du kontratazio organoaren aurrean aipatutako betekizuna betetzen duela. Kontratua indarrean dagoen edozein momentutan, edo, behintzat, behin betiko bermea itzuli baino lehen. Hori betetzen duela egiaztatzeke kontratazio organoaren aurrean honakoak aurkeztuko ditu: enpresaren ziurtagiria, plantillako langileen kopurua zein den adierazita, eta desgaitasun langileekin egindako kontratuen kopia konpultsatuta.

35. klausula – Gauzatzeko baldintza bereziak.

1. Langabeziak jotako kolektiboen enplegua sustatzeko baldintzak.

Kontratua gauzatzeko langileen kontratazio berrietan, enpresa kontratatzaileak lehenetasuna emango die langabezia egoera legalean daudenei, ekainaren 20ko 1/994 Legegintzako Errege Dekretuaren 208. artikulua xedatzen duenaren arabera, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena beti ere, egingo den lan kontratuaren izaerari begira bere ezintasuna justifikatzen ez bada, kontratazio berrien %15a, gutxienez, horrelako kolektiboetako pertsonak beteko dituzte lanak.

Kontratua gauzatzeko esparruan, langabezia-kolektiboko langileen kontratazio berriak frogatuko ditu kontratistak, horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztuko du: izena, abizenak, NAN eta Gizarte Segurantzaren alta eta afiliatuta dagoenaren frogagiria.

Betekizun hori ez du kontratistak bete behar kontratuaren esleipenak subrogazioa dakarrenean eta kontratu berriak kontratazio berriak behar ez dituenean.

Eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagotik, langabezia egoera legalean dauden pertsonak kontratatzeke betekizuna ez betetzeagatik (klausulan ikusitakoa) ulertuko da kontratua ez dela bete eta kontratuaren aurrekontuaren %10eko zigorra ezartzea ekarriko du

2. Berme sozialaren baldintzak.

a) Lanak betetzeko baldintzak

Enpresa kontratatzaileak Gizarte Segurantzaren eta Segurtasunaren eta laneko Osasunaren baldintzak bete beharko ditu, bereziki, egin behar diren prestazioak lan-ordenantzaren menpean daudenean edo hitzarmen kolektiboaren menpean daudenean, kontratistak lan ordenantzaren xedapenak eta dagokion hitzarmen kolektiboa bete beharko ditu.

Erantzukizunpeko adierazpenak erabiliz, edo egokia denean erakundeen ziurtagiriak erabiliz, enpresa esleipendunak egiaztatuko du kontratua betetzerakoan lanpostuen babesari, lanaren egoerari eta lan arriskuen babesari dagokien aldetik aplikagarriko baldintzak bete direla.

Betekizun hori ez bada betetzen kontratua ez dela bete ulertuko da, eta kontratuaren aurrekontuaren %10eko zigorra ezartzea ekarriko du.

b) Baldintzak lan harreman, banakako harremani eta harreman kolektiboaren arloko araudia betetzeko

Eskudun autoritateak enpresa kontratatzailea kondenatzen badu zigor irmoz administrazio bidean, (LISOS) Arau-hauste eta Ordena Sozialaren Legearen 67 bitarteko artikuluetan tipifikatutako arau-haustearen komisioak aginduta, abuztuaren 4ko 51/2'000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsita, eta horiek egiten badira kontratua gauzatzeko, kontratua ez dela bete ulertuko da, eta honako zigorrek dakartza: kontratuaren aurrekontuaren %5ekoa arau-hauste arina denean (6. artikulua) edo %10ekoa arau-hauste larria denean (7. artikulua).

Kontratua gauzatzeko arau-hauste larria gertatu eta komisioak kondetzen badu, LISOS delakoaren 8. artikuluan tipifikatuta, ulertuko da kontratua ez dela bete, beraz, kontratistaren kontratua indargabetuko da zehapen irmoa denean administrazio bidean.

Era berean, kontratistak kontratuaren arduradunari informatu beharko dio puntualki lan arriskuak prebenitzearen arloko zigorrei buruz, baldin eta horiek egin badira kontratua gauzatzeko, eta bere kontra planteatu diren behineko errekursoen berri eman beharko dio eta haien gaineko ebazpenen berri eman beharko dio.

Informatzeko betekizuna ez betetzea ulertuko da kontratuaren funtsezko baldintza bat ez dela bete, kontratistaren kontratua indargabetu ahal da zehapena irmoa denean

c) Lan arriskuen prebentzio araudia betetzeko baldintzak.

Eskudun autoritateak enpresa kontratatzailea kondenatzen badu zigor irmoz administrazio bidean, lan arriskuak prebenitzearen arloan (LISOS) Arau-hauste eta Ordena Sozialaren Legearen 6-7 bitarteko artikuluetan tipifikatutako arau-haustearen komisioak aginduta, abuztuaren 4ko 51/2'000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsita, eta horiek egiten badira kontratua gauzatzekoan, kontratua ez dela bete ulertuko da, eta honako zigorrek dakartza: kontratuaren aurrekontuaren %5ekoa arau-hauste arina denean (11. artikulua) edo %10ekoa arau-hauste larria denean (12. artikulua).

Kontratua gauzatzekoan arau-hauste larria gertatu eta komisioak kondetzen badu, LISOS delakoaren 13. artikuluan tipifikatuta, ulertuko da kontratua ez dela bete, beraz, kontratistaren kontratua indargabetuko da zehapen irmoa denean administrazio bidean.

Era berean, kontratistak kontratuaren arduradunari informatu beharko dio puntualki lan arriskuak prebenitzearen arloko zigorrei buruz, baldin eta horiek egin badira kontratua gauzatzekoan, eta bere kontra planteatu diren behineko errekurtsioen berri eman beharko dio eta haien gaineko ebazpenen berri eman beharko dio.

Informatzeko betekizuna ez betetzea ulertuko da kontratuaren funtsezko baldintza bat ez dela bete, kontratistaren kontratua indargabetu ahal da zehapena irmoa denean

3. Emakume eta gizonen berdintasunerako baldintzak.

Kontratua gauzatzekoan ondorioz sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, kontratistak kontuan hartu beharko du generoaren ikuspegia; hizkuntza ez sexistara erabili beharko du,; saihestu beharko du emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexistara, eta irudi jakin bat sustatu beharko du, balio hauek izango dituenak: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatu bat, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero identitate plurala.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Jaurlaritzako otsailaren 18ko 4/2006 Legean eta emakume eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betekizunak bete beharko ditu kontratistak.

Enpresa-kontratistak 250 langile baino gehiago edukiz gero, frogatu beharko du emakume eta gizonen berdintasun plana duela martxoaren 22ko 3/2007 Legeak xedatzen duenarekin bat etorritik, Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunerako.

4. Baldintzak azpi-kontratatzaileei ordainketak betetzeko.

Kontratuan parte hartzen duten azpi-kontratatzaileei edo hornitzaileei ordaintzeko epeak bete beharko ditu kontratistak. Epeak ezarrita daude SPKLTBeko 228. artikuluan.

Azpi-kontratatzaile eta hornitzaile guztiei kontratistak zorrotz ordaintzen diela konprobatzeko aukera beretzat gordetzen du Udalak. Kasu horretan, kontratuaren arduradunak eskatuta, azpi-kontratatzaile eta hornitzaile guztiei egindako ordainen frogagiria aurkeztu beharko du kontratistak, haiek prestazioa amaitu eta gero.

36. klausula – Kontratua aldatzea.

1. Kontratua burututakoan, interes publikoengatik bakarrik alda daiteke, horrela aurreikusita bada, edo, aurreikusita gabeko kasuetan, Legeak ezarritako zehaztasunak gertatzen direnenean. Horiek dira::

A) Aurreikusitako aldaketak:

Kontratua alda daiteke beti ere **Karitulako 36. paragrafoan** aukera horren berri berriaz eman bada, eta alderdi hauek modu argi, zehatz eta zein nahasizkoan zehaztu badira, kontratua zein baldintza betez aldatu ahal izango den, aldaketek zer helmen eta muga izango dituzten, kontratu-prezioaren zer ehunekori eragin ahal dioten gehienez, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 106. Artikuluak xedatutakoaren arabera.

B) Aurreikusiko gabeko aldaketak

Kontratuak alda daiteke bakarrik zehaztasunak gertatzen direnean eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 107. artikuluak xedatzen dituen mugak sortzen direnena.

2. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 306. Artikuluak xedatzen duenarekin bat etorriz, baldin eta zerbitzu-kontratuaren aldatzeagatiko ondorioz, mantendu behar diren ekipoak gehitu, gutxitu edo ezabatu egiten badira, ekipo batzuen ordez beste batzuk jartzen badira, beti ere horiek kontratuan jasota badaude, kontratistak nahitaez bete behar ditu aldaketa horiek, eta ez du inolako eskubiderik izango ondasun unitateak edo ondasun-motak ezabatu edo gutxitu direla-eta kalte-ordainik eskatzeko.

3. Aldaketak nahitaezkoak dira kontratistarentzat. Erabakiko dira kontratistari entzunaldia eman eta gero. Eta dokumentu administratiboan formalizatuko dira, behin betiko bermea eratu ondoren.

37. klausula – Kontratua etetea.

Administrazioak kontratua etetea erabakitzen badu, edo etetea, Sektore Publikoko Kontratuen legearen Testu Bateginaren 216. Artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorio bada, akta bat egin behar da egoera hori sorrarazi duten inguruabarren berri jasotzeko eta kontratuaren gauzatzea nola geratu den jasotzeko.

38. klausula-. Enpresa esleipendunaren ondorengotza kontratua gauzatzean.

Sozietate kontratistak enpresen bategite batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du bategitearen ondorioz sortu den erakundearekin edo erakunde xurgatzailearekin; izan ere, erakunde hori kontratutik sortutako eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da. Era berean, enpresen zatiketa, elkarpena edo eskualdatzea gertatzen denean, kontratuak indarrean jarraituko du kontratua eskutariko duen erakundearekin, erakunde horrek subrogazio bidez, baldin eta kontratua esleitu zenean beharrezko ziren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu.

39. klausula - Isilpekotasuna.

Kontratistak isilean gorde beharko du informazioa kontratuaren gauzatzea dela-eta eskura dezakeena. Kontratistak eta izendatutakoak, ez eurentzat ez hirugarrenentzat, ezin dute erabili kontratatutako langileen informazioa, Administrazioak ez badu baimena ematen idatziz, horrexegatik, behartuta daude baliabide guztiak jartzeko isiltasunean gordetzeko, eta informazio guztia erreserbatuz eta egindako lanen ondorioak erreserbatuz (SPKLTBeko 140. artikulua)

Lanak egiterakoan sortzen diren datu pertsonalen erabilera debekatuta dute enpresek eta euren langileek, eta, beti ere, lanean ari direlarik datu pertsonalik ezagutzen badute, isilpean gorde beharko dute.

40. klausula- Datu pertsonalen tratamendua.

Datuen tratamendua: eragiketa eta prozedura teknikoa da -batzuetan automatizatua, beste batzuetan ez-, eta datuak bildu, gorde, grabatu, landu, aldatu, kontsultatu, erabili, blokeatu, ezabatu eta ezerezteko aukera ematen du, eta identifikatutako edo identifika daitezkeen

pertsona fisikoen gaineko komunikazio, kontsulta, elkarkonekzio eta transferentzien eraginez datuak.

Baldin eta, kontratazioa dela eta, izaera pertsonaleko datuetara sartu behar badu kontratistak edo enpresa-kontratatzaileak edo azpikontratistak, nahitaez Sektore Publikoko Kontratuen Legearen seigarren xedapenak xedatzen duenari jarriko zaio edo honako arauai.

1. Kontratistak, datuak bakarrik tratatuko ditu tratamenduaren arduradunaren jarraibideei jarraituz.
2. Datu pertsonalak bakar bakarrik erabiliko dira kontratuaren xederako, eta ezin dira erabili bete erabilerarako.
3. Kontratu hau dela-eta, erabilitako datu pertsonalak ezin dira hirugarrenei eman. Horretarako kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalak edo horiekin egindako fitxategiak ez ezagutarazi, laga edo jakinarazteko, ez idatziz ez ahoz, ez bide elektronikoez, ez paperez, ez hirugarrenek ikusteko.
4. Kontratuaren xedea prestatzeko parte hartzen dutenak eta kontratista behartuta daude, isilpekotasun sekretuagatik, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. Artikuluak aginduta. Betekizun honek indarrean jarraituko du kontratua indarrik gabe daukanean ere, bai hori betetzeagatik bai bere ebazpenagatik.
5. Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko Lege Organikoak eskatzen dituen neurri teknikoak, administratiboak eta antolatzaileak hartzeko konpromisoa izango du kontratistak. Hori beharrezkoa da kontratu honen xedea gauzatzeko datu pertsonalak tratatzeko.
 - a) Horri dagokionez, lanak hasi aurretik, zerrenda bat (datu pertsonalen iritsiko diren langileen izen-abizenak, funtzioak eta lana non) kontratazio organoari emango dio kontratistak. Kontratua gauzatzen den bitartean langile batzuei alta edo baja eman behar bazaie, enpresa esleipendunak zerrenda berri bat aurkeztuko du gerta hori den egunetik aste batera. Enpresa esleipendunak zein zerrenda horretan dauden langileek konpromiso formala hartuko dute idatziz datu pertsonalak isilpean gordeko dituztela ziurtatzeko.
 - b) Esleipenduna behartuta dago segurtasun neurriak sustatzeko tratamendu zentro, lokak, ekipo, sistema eta programenei dagokienean. Plegu honetan Karatulan adierazita daude.
 - c) Kontratua amaitu ondoren, euskarri guztiak itzuli edo datu pertsonaleko fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu beharko ditu esleipendunak. Suntsipena egingo den da errekueraezina moduan. Fitxategien itzulera edo suntsipena egingo da akta baten bidez, esleipendunak eta lanen zuzendariak sinatuta, non zirkunstantzia guztiak jasota egongo diren.

41. klausula- Lanen jabetza.

Kontratua gauzatzeko egingo diren azterlan eta dokumentu guztien jabetza Derioko Udalak izango du, eta honek erreproduzitu, argitaratu eta zabaldu ditzake osoki edo partzialki, eta lanak egiten dituen esleipenak ezin du horren kontra jarri.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide baten babes pean dauden produktuak garatzea eta eskaintzea objektu duten zerbitzu kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori Derioko Udalarri laga beharra. Edonola ere, kontratazio-organismoak bere esku izango du, beti, SPKLTBeko 3. 1. artikuluan aipatzen diren sektore publikoko ente, organismo eta erakundeei dena delako produktu hori erabiltzeko baimena ematea, baita jabetza intelektualeko eskubideak lagatzeko aukera bazterten denean ere.

BOSGARREN KAPITULUA.- KONTRATUA SUNTSITZEA.

Kontratua indarrik gabe geratuko da bai amaitzen delako bai horrela erabakitzen delako.

42. klausula- Kontratua betetzea.

Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazioa osorik gauzatu duenean, betiere kontratuko baldintzen arabera eta administrazioaren nahierara.

Jasotzea.

Nolanahi ere, hori egiaztatzeko, administrazioak jasotze- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat (jasotze akta) egin behar du kontratuaren objektua entregatu edo gauzatu ondoko hilabetearen barruan, beti ere, plegu honen Karatulan ez bada beste bat zehaztu.

Baldin eta kontratistak ez baditu lanak hitzartutako prestazioaren arabera egin, ikusitako akatsak konpontzeko jarraibideak idatziz emango zaizkio enpresari konpontzeko. Idazki horretan konpontzeko epea aipatuko da.

Enpresa-kontratatzaileak erreklamazioaren bat jartzen badie oharpenei, kontratazio-organoak erabakiko du.

Enpresa-kontratatzaileak ez badu erreklamaziorik jartzen idazki baten bidez, ulertuko da haien ados dagoela, eta ikusitako akatsak konpondu beharko ditu nahitaez.

Jarraibide haiek bete arte ez da egingo dagokion jasotze-akta.

Akatsak konpontzeko epea agortu eta horiek ez badira konpondu behar bezala, administrazioak atzera bota dezake eta ordaintzeko betebeharretik askatuta geldituko da, edo ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du, hala badagokio.

Nolanahi ere, egindako lanak ez badatoz bat hitzartutakoarekin eta administrazioari leporatu ezina bada, kontratazio organoak atzera bota dezake, eta ordaintzeko betebeharretik askatuta geldituko da, edo ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du, hala badagokio.

Enpresa-kontratatzaileak eskubidea izango du ohartarazpenak nola aplikatuko diren jakiteko eta iritzia emateko.

Kontratuaren likidazioa.

Kontratu-likidazioa erabaki eta jakinarazi beharko zaio kontratistari, eta, hala badagokio, dagokion saldoa ordaindu, jasotze- edo adostasun-akta egiten denetik kontatzen hasita hilabete epearen barruan.

43. klausula- Akatsak eta hutsak berme epean.

Karatulako 35. paragrafoan, kasua bada, ezarritako berme epea kontatzen hasiko da jasotze- edo adostasun-datatik aurrera.

Berme epean egindako lanetan akatsak edo hutsak daudela frogatzen bada, kontratazio organoak eskubidea izango du kontratistari eskatzeko horiek konpon ditzan.

Kontratazio organoak konpontzeko epe bat jarri eta kontratistak akatsak ez baditu konpontzen epe horretan, hark nahitaezko betearazpen baliabideak erabaki ahal izango ditu, urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak ezarrita.

Berme-aldia amaitu eta administrazioak ez badu aurreko paragrafoetako eragozpenik edo salaketarik jarri, amaitu dira kontratistak prestazioarengatik zituen erantzukizunak. Nolanahi ere, kontratua obra-proiektuak egiteko bazen, halako kontratu-erako ezarritakoa eta akatsak konpondu beharraz eta erantzukizunaz SPKLTBeko 310., 311. eta 312. artikuluetan ezarritakoa bete beharko da.

Kontratistak eskubidea du kontratatutako prestazioa ondo edo gaizki gauzatu duen adierazteko egiten zaizkion oharrek jakiteko eta haietaz esateko duena entzun dakion.

44. klausula- Bermeen itzultzea eta ezerezteia.

Ez da bermerik itzuli edo ezereztuko, harik eta berme-epea amaitu eta dena delako kontratua behar bezala bete arte, edota kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi arte.

